



ARGIA



LUIS ORTIZ ALFAU, 1936AN MILIZIANO: "BELDURGARRIA IZAN ZEN GERRATIK ITZULTZEA"



RAMON SALFARRITORIA
"KRITIKARAKO ZUHURTZIA
BEHAR DA, BAINA
PASATZEN ARI GARA"

EUSKARA ELKARTEK
BESTE HERRI
MUGIMENDUEKIN JARDUN
BEHAR DUTE?

1766KO MATY...
EUSKALDUN POBREEK
KLASEKONTZIENTZIA
HARTOZUTENEGOKA

Europa erakusten digutena baino askoz ere anitzagoa eta ederragoa da

EUROPAKO HERRIEN MAPA EUSKARAZ



Neurria: 84.1 x 59.4 cm

Etxe, eskola eta elkarteetarako opari aproposa

Mundua ulertzeko beste begirada bat,
ARGIAren eskutik.



Egin ezazu eskaera: ☎ 943 371 545 | www.argia.eus/denda | denda@argia.eus

PANORAMA

- 4 Asteko argazkia
- 6 Albisteak
- 10 Gazteluko Plazatik
- 11 Hor dena gailu
- 12 Net Hurbil

IRITZIA

- 19 Mikel Zurbano
- 20 Iñaki Mendiguren
- 21 Koldo Aldalur
Itxaro Borda



'Lili eta biok' bere azken nobelaz mintzatu zaigu Ramon Saizarbitoria.

(ARGAZKIA: DANI BLANCO)

- 38 BIZI BARATZEA
- 40 DENBORAREN MAKINA
- 41 ARGIA KOMUNITATEA
- 47 BERTSOAK
- 48 KULTUR KRITIKA
- 50 ZUZENEKO EMANALDIA
- 51 DENBORA-PASAK
- 52 ARGI-KONTRA:
MARÍA DO CEBREIRO
- 54 BERANDUEGI

AZALEKO ARGAZKIA: DANI BLANCO

SAKONEAN

- 14 | Luis Ortiz Alfau: "40 urte igaro genituen ezpainak lotuta, arrainak bezain mutu" / Miel A. Elustondo
- 22 | Matxinada: XVIII. mendeko suminduak / Urko Apaolaza Avila
- 27 | Blanca Estrella Ruiz Ungo, Clara Campoamor elkarteko zuzendariarekin solasean / Malen Aldalur Azpillaga
- 30 | Euskara elkarteei badagokie gizarteko bestelako gaietan bustitzea? / Onintza Irureta Azkune
- 32 | Hegoaldeko trenbide saihebidia: zementu gehiago Meatzalde eta Ezkerralderako / Unai Brea
- 34 | Ester Quintana: "Epaiketara heltzea garaipena da gomazko piloten biktimentzat" / Asier Arrate
- 36 | "Errefuxiatuen kanpamentuetan, GKE handiak hedabideak datozenean ateratzen dira" / Koldo Azkune Etxabarri
- 42 | Ramon Saizarbitoria: "Gure gerra konplexuagoa izan da eta kontakizuna egiaziagoa" / Gorka Bereziartua Mitxelena

ARGIA KOMUNIKAZIO PROIEKTUA HARPIDEDUNEN ETA LAGUNTZAILEEN BULTZADAREKIN ATERATZEN DUGU AURRERA. MILA ESKER DENOI.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



DOAN ETA LIBRE

ARGIAKO EDUKIAK KOPIATU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU,
GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea.
Lehendakaria: Bego Zuza. **Zuzendaria:** Estibx Eizagirre.
Erredakzioa: Ane Urkola, Axier Lopez, Estibx Eizagirre, Garbine Ubeda, Gorka Bereziartua, Iker Oñate, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Unai Brea, Urko Apaolaza, Xabier Letona.
Diseinua: Sergio Labrador. **Argazkilaria:** Dani Blanco.
Produktzioa: Antza S.A.L.
Harpidetza: Iraitz Agirre.
Salmenta: Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta.
Idazkaritza: Aloña Sorraluze, Bego Zuza.
Administrazioa: Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte, Marijo Aiertza.
Web garapena: Asier Iturralde. **Ikerketa:** Andoni Zulaika.

HELBIDEAK:

Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048.
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163.
Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580.
Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285.

POSTA ELEKTRONIKOAK:

Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpide@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus.
Interneten: www.argia.eus.
Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E.
Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L.

HARPIDETZA:

Euskal Herria eta Espainiako estatua: astero, 12 € hilean; hamabostero, 6,5 € hilean; hilean behin, 3,5 € hilean.
Beste atzerriak: 15 € hilean. Airez: 24 € hilean.



PANORAMA

Norena da kalea: herritarrena ala Udalarena?

Bitartekaririk gabe herritarrok gure ideiak adierazteko dugun gune bakarra da kalea. Nola arautu ordea denok erabiltzen dugun espazioa adierazpen askatasuna urratu barik? Arrasateko eta Zumaiako gobernuek (EAJ), garbitasunaren izenean, kartel eta pankartei ezarritako mugek eta debekuek hautsak harrotu dituzte. Arrasaten oposizio guztia eta herri mugimenduak batu dira "mozal ordenantzari" aurre egiteko. Eta Zumaian –argazkian– kalea guztiona dela aldarrikatzen ari dira alkateak ezarri duen debekua salatzeke.

Argazkia: Dani Blanco



ALKATEAK
ARTEL HAU
BEBEKATU DU

ERAKUTSUNA DA

ARTAL





Emakumeek ere dantza-jauzietan parte hartzea bozkatu dute. Luzaiden: baietz %75ek, ezetz %20k eta %5 balio gabeak izan dira.


argia.eus/multimedia



 **Merkataritza txikia: herriaren plaza**

Nolakoa da merkataritza txikiaren argazkia Euskal Herrian? Imanol Esnaola Gaindegiako kidearekin aritu dira Ertzak saioan.



 **120 ordu. Euskal Herriaren aurkako tortura**

Zenbait elkarrizketaren bidez zer mekanismok ahalbidertzen duten tortura aztertu dute.



Auto gidari baten kamerak grabatu zuen leherketaren unea, eztrandaren distira eta ondorengo kea.

Anberesko erraustegian leherketa gertatu da, Flandrian

Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Irudiak ikusgarriak diren arren, hemengo telebistek ez dituzte eskaini eta albistea gainerako hedabideetara iritsi ere ez da egin. Baina gertatu, gertatu da: leherketa handia Anberesen (Belgika) hondakin industrialak errausten dituen plantan eta ondorengo sutea, 60 suhiltzailearen esku-hartzea eskatu duena. Otsailaren 26an gertatu da.

Auto gidari baten kamerak grabatu zuen leherketaren unea, eztrandaren distira eta ondorengo kearekin (argia.eus-en ikusgai). Minutu batzuk geroago, inguruko autopista batetik zihoan motozale batek ere grabatu zuen erraustegiak zerurantz jaurtitzen zuen ke beltz handia:

RT hedabideak Anberesko iturri ofizialak aipatuz esan du eztrandaren ostean hiru sute gertatu zirela, istripua “*municipal disaster*” izendatu zuten suhiltzaileek lau orduz lan egin ondoren amatatu zituztenak.


Egoitza nagusia Holandan duen Indaver multinazionalak Belgika, Britainia Handia, Irlanda, Portugal eta Alemaniako lantokietan hondakin industrialak eta hiri hondakinak tratatzen ditu. Anberesko plantan enpresak berak informatzen duenez, hondakin arriskutsuak hiru labe birakaritan kiskaltzen ditu. Istripuaren ondoren, hiru labeetatik bat martxoaren 5ean abiarazi dute berriro baina beste bien konponketak “aste batzuk gehiago” beharko zituela iragarri zuen konpainiak.

“Nafarroako proiektu eolikoaren ingurumen-inpaktuak onartezinak dira”


MARTIN ZELAIA, SUSTRAI ERAKUNTZA FUNDAZIOA

Nafarroa erdialdean sei parke eoliko eraikitzeko Agrowind enpresak duen proiektuari alegazioak aurkeztu dizkiote Sustrai Erakuntzak, inguruko bi udalek eta 200 inguru banakok. “Egitasmoak ez du justifikaziorik energia-premiaren ikuspuntutik –esan du Zelaia–; gutxienez Gobernuak iragarritako Energia Planaren berrikuspena burutu arte itxaron beharko litzateke argi berdea emateko”. **2016-04-04**






BATEZ BESTEKO LUR EREMUAK (Ha)




Zenbaki nagusiak	2000	2010	Bilakaera
Etxaldeak	5.939	4.454	- % 25
Aktiboak	11.501	8.597	- % 25
Lanaldi osoan	6.937	5.855	- % 16
Lur eremuak	136.980	124.195	- % 9

Etxalde ttipiek enplegua bermatzen dute


ETXALDEEN BANAKETA ADINAREN ARABERA, 2010 URTEAN



ETXALDEEN, LUR EREMUEN ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA, ETXALDEAREN NEURRIAREN ARABERA



EKOIZPENAK



Laborari gazteagoak, Frantziakoan aldean

Iturria: Euskal Herriko Laborantza Ganbara



MEDIAPART

Frantziako lan erreforma eta Nuit Debout mugimendua

Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

Ehunka lagunek Parisko République plaza okupatu dute apirilaren 1etik, Nuit Debout ekimenaren baitan. Frantziako Gobernuaren lan erreformaren kontrako manifestazioaren ondoren hasitako dinamikak Espainiako Estatuko M15a eta AEBetako Occupy mugimendua ekarri ditu gogora.

Martxoaren 31n piztu zen protesta berria, Myriam El Khomri Enplegu ministroak bultzatu duen erreformaren kontra milaka herritar kalera atera zirenean. Langileak errazago kaleratu ahal izateko aukera eskainiko luke lege aldaketak. Besteak beste negozio-zifrak okertuko balira edo enpresak berrantolatuko balira pertsonala murriztea ahalbidetuko luke. Gainera, kaleratutako langileak kalte-ordain txikiagoa jasoko luke eta enpresa bakoitzeko akordioek hitzarmen kolektiboek baino pisu handiagoa izango lukete.

Hego Euskal Herrian Espainiako Gobernuak ezarritako legediaren antza dute iragarri diren neurri berriek eta patronalaren zein alderdi kontserbadorre frantziarren babesa dute.

Erreformaren kontra plazak okupatzeko mugimenduak lehen asteburua pasa du Parisen eta Frantziako Estatuko beste hainbat hiritan –Euskal Herritik gertu, Paben eta Bordelen– ere antolatu dira.

Plazak hartzeko deialdia

“Enpleguaren lege proiektuak hainbeste lagun mobilizatu baditu, izan da injustizia beti urrunago bultzatuz, jasan genezakeenaren dikea pitzatu duelako”, irakurtzen da Convergence des Luttès webgunean. Atari horren bidez deitu zuten plazak hartzera. Antolatzaileen ustez “gure agintariak arnasarik gabe geratzen ari den sistema betikotzeko gotortu dira, geroz eta atzerakoiagoak diren erreformen prezioa ordainduz eta beti azken 30 urteetako neoliberalismoaren logikarekin bat eginez: botere guztia akziodunentzat eta patrioentzat, aberastasun kolektiboak bereganatzen dituzten pribilegiatuentzat”.

Parisko agenda militantea biltzen duen Demosphere webgunean ikusten denez, egunero 18:00etan deitu dituzte Nuit Debout ekimenaren batzar orokorrak. Gainera, apirilaren 5ean eta 9an beste bi manifestazio deitu dituzte Parisen El Khomri ministroak bultzatutako lan erreformaren kontra.

EKONOMIAREN TALAIAN

Gerraren atzean, armagintza industria



Juan Mari Arregi

Munduan gerraren ondorioak zein diren ikusten ari gara azkenaldian, batez ere Sirian, baina baita Europan ere, milaka errefuxiatu iristen ari baitira. Bestalde, hor daude Frantzia eta Belgikako atentatu odoltsuak. Europako atentatuok inpaktu handikoak dira mediatikoki, Europako herritarrogi gertuago eragiten dituzte gure mugetara iristen diren errefuxiatuek, jadanik lau milioi diren arren Siriako gerratik ihesi. Eta distantzian hain urrun dauden eta telebistek erakusten ez dizkiguten siriarrak gatazka luzearen 250.000 hildakoek zer esanik ez.

Aita Santuak berak salatu du Bruselako aireportuan eta metroan izandako atentatuen atzean arma trafikanteak daudela: “Odola nahi dute eta ez bakea, gerra eta ez anaitasuna”. Falta zitzaion esatea Siriako gerraren atzean arma trafikante horiek dabiltzala eurentzat negozioa egiten, AEBak, Errusia eta Europa inplikaturik dauden gerra ororen atzean bezala.

2014ko munduko gastu militarra ia bi bilioi dolarreraino iritsi zen; munduko Barne Produktu Gordinaren %2,4 da hori. Batez beste, pertsonako eta urteko 248 euro gastatzen dira armetan. Munduko hamar armagintza enpresa handienetarik zortzi AEBetan aurkitzen dira. Urtero 23.000 milioi dolarreko etekinak izaten dituzte. Espainiako Estatuko 2014an 3.200 milioi dolarreko balioa zuten armak esportatu zituen. Arma produkzio horren gehiengoa Irak, Afganistan, Siria, Libia eta Yemenera doa, hala nola Israel eta Saudi Arabia edo antzeko herrialdeetara. Beraz, ez dezagun ahaztu: Siriako egungo gatazka kapitalarentzat negozio erraldoi bat ere bada, atzean armagintza industria dagoelako.



DANI BLANCO

Bernat Etxepare lizeoa, podiumean

BAIONA. Frantziako Estatuko lizeoen artean lehen postua erdietsi du Baionako Bernat Etxeparek, Le Point astekariak eginiko sailkapenean. Hezkuntza Ministerioak bigarren hezkuntzako ikastetxeen ebaluazio datuak agitaratu ditu, 2015eko emaitzetan oinarrituta. Guztira 4.300 heziketa zentro inguru aztertu ditu, irakaskuntzaren arrakasta eta ikastetxeek beren ikasleak mantentzeko duten gaitasuna neurtu nahian. Ikastetxeen bilakaera ere islatzen du azterketak. Seaskako kide den Bernat Etxepare lizeoak euskarazko irakaskuntza eskaintzen du eta Ipar Euskal Herri osoko ikasleak ditu. Euskaraz ikasi arren, azterketa gehienak frantsesez egin behar dituztela salatzen dute.

Euskara maila egiaztatzeko azterketa libre gehiago

Argia
@argia

Euskara gaitasuna egiaztatzeko azterketa libre bakarra ez da EGA izango. Eusko Jaurlaritzaren erabakiz, irailetik aurrera B1 eta B2 mailetarako probak ere libreak izango dira.

Baldintzak

B1 eta B2 mailetak probetara aurkezteko, EGAn eskatzen diren moduko baldintzak eskatuko dituzte. Hala nola, gutxienez 17 urte izatea. Bestalde, A1 eta A2 mailetan ere ziurtagiriak eman- go dituzte.

Beharrezko probak

“Beharrezkoa da EGA hainbat erabileratarako, baina beste askotarako ez. Euskaraz bizitzeko ez da EGA mailarik behar, funtziona daiteke maila apalagoarekin” adierazi du Patxi Baztarrika Hizkuntza Politikarako sailburuordeak.

EGA auzitan

EGARA aurkezten den lautik hiruk ez du proba gainditzen. Eusko Legebiltzarrak eskatuta, aditu talde bat EGARI buruzko txostena ari da burutzen eta emaitzak laster aurkeztea espero da.

OSASUNA



12,6

milioi heriotza eragiten ditu urtean munduan ingurumenaren osasungarritasun ezak, aire, lur eta ur kutsadurak, substantzia kimikoek eta izpi ultramooek, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera.

%23

Ingurumen baldintzek munduko heriotzen %23 eragiten dituzte.



TRATU TXARRAK ANIMALIEN AURKA

L214 elkarteak zabaldutako bideo batean ikus daitezke Mauleko hiltegioko abereek jasandako tratu txarrak. Prokuradoreak ikerketa jarri du martxan. ELBk animalien aurkako gehiegikerien kontra dagoela adierazi eta “hurbileko hiltegien beharra” azpimarratu du.



AURTEN SEI HERIOTZA EAE-N AMIANTOAK ERAGINDA

Olaberriako Arcelor Mittaleko altzairutegian 37 urtez labezain lanak egin zituen langile bat hil da, asbestosiaren ondorioz. Silize, ke metaliko eta amiantoaren artean egin zuten lan babesik gabe.



OARSOALDEAK 2017KO MARTXOAN DU HERRI GALDEKETA

Gure Esku Dagoren dinamikari jarraiki, herri galdeketa iragarri du Demoarsok Erretereria, Pasaia, Oiartzun eta Lezon. 2017ko martxoaren 19an dute hitzordua.

Cabacas auzia, lau urte eta epaiketara ezin iritsiz



Xabier Letona

@xletona

HILTZAILERAK libre jarraitzen du, hori da oraingoz argi eta garbi dakigun bakarra. Hau da, Iñigo Cabacas gaztea Bilbon duela lau urte gomazko pilota batez hil zuen ertzainak libre jarraitzen duela. Oraindik ez dakiguna da erailketa edo homizidioa izan zen. Epaiketak argitu beharko du hori.

Lasai ote da hiltzailea? Egin beharrekoaren kontzientzia ote du edo estu ibiliko da Manu Cabacas eta Fina Lizarranzu Iñigoren gurasoak hedabideetan ikusten dituen bakoitzean?

Irudika daitezke gertueneko agintariak ertzainen artean lasaitasuna hedatu nahian: “Gertatzen direnak dira”, “Istripu bat izan zen”... Haien agintariak hori saltzen dute bederen. Gervasio Gabilondo Ertzaintzako zuzendaria (Europa Press, 2013ko apirila): “Istripu bat izan da, hala izendatu behar dugula uste dut, istripu bat izan da inork ez zuelako sortu den mina eragiteko borondaterik”.

“Aginduak errepikatuko dizkizut argi gera daitezen (...) Sartu kalekkan daukagun guztiarekin, sartu Herrikoan (...) Eta orduan egongo da egoera kontrolpean”

Baina hilabete horretan bertan, *Gara* egunkariak argitaratu zuen *Ugarteko* Ertzaintzaren Deustuko komisaldegiko buruak Cabacas zauritu zuen erasoan parte hartu zuen ertzain taldeari emandako agindua. Elkarrizketan entzuten denez, operatiboan parte hartu zuten ertzainen buruek hiru aldiz jakinarazi zioten *Ugartekori* Athleticeko zaleen artean lasaitasuna zegoela une hartan, egoera kontrolatua zegoela. Honek, al-diz, tinko erantzun zien: “Aginduak errepikatuko dizkizut argi gera daitezen (...) Sartu kalekkan daukagun guztiarekin, sartu Herrikoan (...) Eta orduan egongo da egoera kontrolpean”. Aginduon emaitza ezaguna da: tabernako kanpoko barran zerbait hartzen lasai zegoen Iñigo Cabacas gazteari burua lehertu zion gomazko pilota batek.

DENA IKERTU eta argituko zela agindu zuen egun haietan Eusko Jaurlaritzako Barne Sailburu Rodolfo Aresek. Ez zuen esan noiz; ezin zuen, jakina, hori ez baitago bere esku, baina bere esku zegoen ikerketa ahalik eta tinkotasun handienarekin bideratzea, pilota hura bota zuen ertzaina nor zen jakiteko. Lau urte hauetan Cabacasen gurasoek etengabe salatu dute ikerketak izan dituen oztupoak. Denbora luzea bera ere argigarria da: ertzain talde bat –batzuk borraz, besteak pilota jaurtigailuz-, agintari zehatzak, gertaera eta ondorio argiak... Hain gaitza ote da epaiketara iristea? Hala dirudi, baina ez da ezohikoa, poliziaren partehartzeen ondorioz izandako hilketa guztiek hori adierazten dute.

Grabaketak urtebetera eman ziren ezagutzera eta horren ondoren Barne Sailak *Ugarteko* eta beste lau ertzain bere postuetatik kendu zituen. Baina txanponak badu bere ifrentzua: Jorge Aldekoa zen Bilboko komisaldegiko bu-

rua eta egun hartan zerbitzuan zegoen; 2014an Ertzaintzako buru izendatu zuten.

Ez da nahikoa, ordea. *Ugarteko* izeneko polizia buruak Iñigo Cabacasen familiaren izenean akusazio partikularra daraman Jone Goirizelaia abokatu eta *Gara* egunkaria auzitegietara eramanez dituen. Bere ustez grabaketa horien erabilera eta bere izena modu desegokian erabili eta zabaldu dira, eta kalteordain gisa 777.000 euro eskatzen dizkie abokatuari eta egunkariari. Prozedura epai-leen esku dago oraindik.

Ertzaintzako agintariak diotenez, Cabacasen heriotza ekarri zuen karga haren ondoren Ertzaintzak ez du gomazko pilota gehiago erabili. Alabaina, Eusko Jaurlaritzak ez du oraindik bere erabilera guztiz debekatu. EH Bilduk gomazko piloten erabilera espreski debekatzea eskatu zuen 2015ean Eusko Legebiltzarrean, baina honek ez zuen onartu; piloten erabilera erabat murriztea eskatu zuten gainerako taldeek, eta hori onartu zen.

Nafarroako Gobernuan, ordea, gobernu akordioak gomazko piloten erabilera debekatu du; agindua 2017an sartuko da indarrean, foru poliziak material berria eskuratu ondoren. Espainiako Polizia Nazionalak, al-diz, ohikoan gainera eramaten ditu pilota jaurtigailuak Iruñean manifestazioak zaintzen dituzte.

Jone Goirizelaia iaz sasoi honetan jakinarazi zuenez, ikerketaren arabera dagoeneko bada nahiko material tiro egin zuen ertzaina identifikatzeko. Baina, bistan denez, honek norbaiten aginduak jarraitu zituen. Epaiketa, lehenago edo geroago egin beharko da, beste kontu bat da justiziarik egingo den. Auziaren orain arteko ibilbidea ikusita zalantza da nagusi. ■

Eta krisi handiak Trump eta Sanders errun zituen zazpigarren urtean



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Lanak izango ditu AEBetako establishmentak Hillary Clinton eramateko Etxe Zuriraino. Lehenbizi Bernie Sanders zaharra menderatu beharko du, nork esan XXI. mendean inork arrakasta lortu behar zuenik AEBetan sozialismo hitz tabua beregain hartuta. Eta ondoren Donald Trump, mendebaldeko pailazo populisten karikatura boteretsua. Horiekin azaleratu da 30 urteko esperimentu neoliberalak eta azken zazpi urteko krisi handiak AEBetako klase ertainetan zabalduetako beldur anitza.

Bi hautagai *anti-sistema* beren alderdien aparatuekin erraldoiekin borrokan AEBetako lehendakaritza hartzeko, horra 2016ko udaberriak ekarri digun ikuskizun txundigarria. Bata krisitik irteteko neurri sozialistak aipatzen, bestea hitzetik hortzera zangopean erabiltzen demokrazia yankiaren printzipio oro. Asier Blasek zorrotz azaldu berri duenez ARGIAN ("*AEBetako primarioak aldaketa sozialaren sintoma*") orain eztabaida ez da jokatzeko Obamaren eta Tea Party mugimenduaren artean, orain eztabaida Occupy Wall Street eta eskuinteko populismoaren artekoa da.

Ari Shavit idazle israeldarrak *Ha'aretz* egunkarian idatzi du Donald Trump azaldu denetik Iparramerikako lehen leerroan berari gutxiago galdetzen diotela Israelen palestinarrak zanpatuz Benjamin Netanyahuaren gobernuak egiten dituen desmasiez: "Nola iritsi da [Trump] clown distiratsu bezain arriskutsu, higuin garri eta arlote hau Etxe Zuria okupatzen hain gertu?". Hiru beldurrek eraginda, erantzun du Shavitek berak.

Hasteko amerikar nortasuna galtzeko beldurra, funtsean biztanle zuri eta kontserbadoreek sentitzen dutena; beltzez gain latino, asiarrak eta abarren ugaritzearekin herrialdea eskuetatik ihes egiten ari balitzaie bezala. Estutasun ekonomikoak daude gero, AEBetako klase ertain famatua ahultzeak ekarritakoak. Eta azkenik AEBen gainbeheraren beldurra, "amerikarren mendea" izandako XX.a bukatuak albiste gutziek aipa-

tzen dituztelako Txinaren indar gero eta handiagoa, Errusiaren probokazioak, yankiak Ekialde Hurbileko gatazken zingiretan harrapatuta irten ezinik...

Michael Hirsh *Politico* magazineko zuzendariak uste du ("*Why Trump and Sanders Were Inevitable*") azken 30 urteotan errepublikarrek bezala demokratek berdin sustatu dituztenez globalizazioa eta eredu neoliberalak, denbora kontua baizik ez zela 2008ko krisiak establishmentaz kanpoko liderrak erne araztea, izan Sanders eta Trump edo beste ezberdin batzuk.

"Urteotan ugariak izan dira abisuak: 90eko hamarkada amaieran globalizazioaren kontrako manifestazioak, errepublikarren artean Ross Perot eta Pat Buchananek jokatuak papera, 2011n Occupy Wall Street mugimendua... "Eta batez ere gertatu da klase ertainaren irabaziak gainbehera etorri direla, bitartean aberats oso aberatsak gero eta isolatuago bizi zirelarik; horra kaltea mantso egiten duen benetako azido soziala".

Gauko gizarte ez-igualitarioaren oinarrian den politika neoliberalak errepublikarrek antolatuta zuten arren, ondoren Bill Clinton eta Obama berak sustatu dute neoliberalismoaren mantra, defizit publikoak gutxitu eta aberatsenei zergak murriztea, aberatsago bihurtutako aberatsek pilatu ondasunak azpikoak bustiko zituelakoan euri meheak bezala.

"Trump eta Sanders dira -dio Hirshek- amerikarren egonezinen *yin*




eta *yang*; bakoitzak bere modura azaltzen du amerikar askok sentitzen duten justiziarik eza". Baina amerikar amorraraziok ez dira denak industriaren ondorengo informazioaren gizartean lekua bilatu ez duten jende formazio gutxiago eta kualifikazio urrikoak, unibertsitateko diploma atera berria duten gazte langabetu ondo prestatu asko ere berenganatu dute.

Horietako batzuek maite dute Trump dei egiten duenean mugak ixtera etorkinei, gure gazteei lanpostuak kentzen dizkieten ustezko lapur horiei. Beste batzuek nahiko lukete Sandersek preso sartzeko Wall Streeteko marrazoak eta munduarekin itun justuagoak sinatzea. Hirshen analisiaren arabera, batak bezala besteak berenganatzen dituzte haserre daudenak opilaren zati txikiagia egokitu zaielako, gauzak aldatzeko ohiko alderdiek ez dutela balio uste dutenak.

Globalizazioak kaltetuak

Dani Rodrik Harvardeko ekonomialariak esana du klase ertainaren zanpatze gupidagabea kantzer bat dela luzaz ardatu ez dena. Trump eta Sanders bikotearen fenomenoak ekarri du merkatu kapitalistak bere burua txukun arautuko zuelako uste sinplista, azkenean eskuintean eraikuntzako aberats aho handia eta ezkerrean sozialista buru soildua aurkitu diren arte antiglobalizazioak, antiliberismoak, etorkinen kontrako haserreak eta Wall Streeten aurkakoak topo egiten duten bidegurutzean.



Ezkerrean Bernie Sanders, demokraten sailean Hillary Clintoni hautagai izateko gerra gogorra ematen ari zaiona. Eskuinean Donald Trump, errepublikarren aparatuek eta beste indar askok geldiarazi nahi izan duten arren hautagaitza kasik seguru lortuta daukan enpresaburu eskuindar populista. Biak ageri dira AEBetako jende askoren haserrearen yin and yang bailiran, bakoitzak bere moduan mamitzen duelarik amerikar askok sentitzen duten bidegabekeriaren eta gaizki tratatuak izatearen amorrua.

Askoren burutazioetan klaserik gabeko gizartea omen zena, AEBetako urteotan bilakatu da 1914ko Europa aristokratiko hartakoa baino are desberdintasun handiagokoa, Thomas Pikettyk erakutsi duenez. Hein handi batean mundializazioak ekarri du hori, maila goreneko profesional eta ugazabak aberastu ditu eta gainerakoak proportzioan pobretu. Zeren eta mundu globalizatuan kapitala tximistaren abiadura mugitzen den bitartean eskulana -langileak- itsasontziz, trenez edo hegazkinez bidaiatu behar duelako.

AEBetako langileei konkurretzia egiten diete atzerriko langile txiroagoek, baina bitartean Wall Streeteko konpainiek inoiz baino irabazi handiagoak dauzkate. Langileen artean, goi mailako enplegatuen eta gainerakoen soldatak sekula baino urrunago daude elkarrengandik.

Eta ugazaba traketsena konpainiatik despeditzen da urrezko prima jasota.

Rodriken aburuz, "orain ezin da defenditu nazio gisa denok txalupa berean goazenik. Azkenean hasi baikara ulertzen globalizazioaren etekinak hein handienez eskuratu dituztela kualifikazio handiena eta mugitzeko ahalmen gehiena zutenen eskuetara, kapitalean esku hartu zezaketenetara".

Economic Policy Instituteren kalkuluetan, AEBetako langileen soldatak izozturik geratu dira 70eko hamarkadatik; aldiz, gizartearen gaineko aldean den %1aren irabaziak %156 handitu dira eta gailurraren puntan den %0,1arenak berriz %362.

Baina finantzen 2008ko eztaundak are gehiago nabarmendu zuen amerikarren arteko leizea, erdi mailakoei hondamendia ekarri baitzien. Erreserba Federalak

kalkulatu du klase ertain izendatu daitezkeen horretako etxeetan urteko diru sarrerak jaitsi zirela 2007ko 126.400 dolarretatik 2010eko 77.300 dolarretara.

AEBak atzeraldi handitik ateratzen ari dira ekonomia arras aldatu batekin. Hainbeste aipatutako beroaldi berriak soilik aberatsenei ekarri die abantaila, akzioen igoera dela eta. Joan den otsailean *Harvard Gazettek* plazaratu du yankeen arteko %20 txiroenek 2014an ez zutela jaso AEBetako aberastasunaren %3,6 baino: 1974an %5,7 jasotzen zuten. Duela 40 urte AEBko aberastasunaren erdia biltzen zuten herritarren %40aren artean eta gaur %20ren eskuetara mugatu da opil zati hori bera.

Indar faktikoez lortu lezakete Clinton izendatzea lehendakari baina sustraiko arazo horiek konpondu gabe ez dituzte matxinada berriak saihestuko. ■



zuri begira



ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com




Luis Ortiz Alfau, 1936ko gerran miliziano

«40 urte igaro genituen ezpainak lotuta, arrainak bezain mutu»

Zenbat dira lekuko biziak, 1936ko Espainiako Gerra Zibilean parte hartu eta bizirik irauten dutenak? Zenbat dira Gabriel Arestiren egia kontatzeko sasoiak daudenak? Zenbat dira gerrako frontean ibili ostean beharginen batailoietan eduki zituztenak? Luis Ortiz Alfauk kasik bakarrik ikusten du bere burua, 100 urte betetzera doanean...



Miel A. Elustondo
ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Gerraren ganean berbetan hasita zaude, baina ez zara aspaldi hasitakoa.

40 urtez isilik eta mutu egon behar izan nintzen, barbarik egiterik ez zegoelako. Francoren diktadura beltza izan zen hura. Orain, berriz, ehun urte ditut, eta zuen laguntzaz, gertatu zen hura jakinarazten saiatzea beste helbururik ez daukat. Hemeretzi urte neuzkan gerra hasi zenean. Izquierda Republicanako batailoi batean eman nuen izena.

Hemeretzi urte, eta gerrara.

Nik denbora hartan buruan ez neukan nire bizimodua baino: andregaiak neukan, lanean ari nintzen, estudiatzeko ere ari nintzen. Gura dut esan ez nuela afiliazio politikorik, baina aita errepublikarra zen, eta guk seme-alabok misresmen handia genion, berak bezala pentsatzen genuen, eta horrelaxe joan nintzen. Erriberako Muxikako eskolatan eman nuen gerrara joateko izena, Bilbon bertan. Irrati-telebista eta morse ikasten ari nintzen Kaliforniako institutu batekin korrespondentzia bidez. Zer edo zer banekien, eta transmisioetan jarri ninduten. Ez geneukan telefonorik,

ez banderarik, ez fusilik... baina hemeretzi-hogei urte geneuzkan, eta uste genuen mundua irentsiko genuela.

Gerrara joateko izena eman eta gero, zer izan zen?

Casero kapitaina zen batailoien izena, uste dut Casero Errepublikara garaiko militarra izana zela, Primo de Riveraren diktadura denboran fusilatutakoa. Harexen omenez zeroan izena batailoiak. Arabako frontera eroan gintuzten, Otxandio, Legutio... horra. Hura zen lehenengo geratu behar zena, baina ez zegoen modurik batere. Sekulako txikizioa eragin ziguten, agintaririk ere ez geneukalako. Ikasketadunak ipini zituzten agintzen: gurea, Ondarroako maisu bat zen; maisu ona, seguruenena, baina gerraz tautik ere ulertzen ez zuena. Transmisio tenientea bera ere itsas-armadakoa zen, barku batean praktikak egiten ari zena. Harrapazak hori!

Arabako fronteak ez zuen iraun.

Ez zegoen irauteko modurik. Ez arma ez ezer. Handik Intxortara eroan gintuzten, Elgetara. Han bai, hiru hilabete iraun ge-

nuen. Hura galduz gero, Bilbora sartuko ziren, Santander eta, Espainia iparralde osoa. Zoritxarrez, horixe gertatu zen. Intxortan jende asko hil zen, bi aldeetakoak. Han egunero zen lubakietako borroka, egunero hilak eta zaurituak, eta astean behin txanda egiten ziguten.

Luis Ortiz Alfau

1916, Bilbo

Portugaletekoa zuen ama, Zamorako Torokoa aita. Miliziano joan zen gerran, eta frontea ez ezik erbestea, espetxea eta beharginen batailoiak ezagutu zituen. Hangoak amaituta, soldadutzara behartu zuten. Gerra igarora, gerra ostea bizi izan zuen, 40 urteko diktadura, ezpainak lotuta eduki beharra. Orain, 100 urte betetzera doanean, ez du hura kontatzea beste asmorik. Bizkaiko Elikagaien Bankuan ari da aspaldi, boluntario, administrazio lanetan.



1937 - BARCELONA



1938-1939 - ST. ERQUIADORES



1939-40-41 - PRESO EN RONCAL

Gogoratzen naiz gure konpainia Gernikara jaitsi zela, atsedetera, Erreterriako auzora. Zubi bat zegoen han, bonba bat bota zuten inguruan, eta gure lana izan zen hilak eta zaurituak kamioi eta autoetara jasotzea. Batzuetan amets egiten dut, zer izan zen hura! Gernika bonbardatu eta gero, Durango, Zornotza, Galdakao... bonbardatu zituzten, eta Artxandaraino etorri ginen, atzerantz. Asua aldeko zelaietan genuen lubakia, San Roke ermita inguruan, eta goian kasinoa zegoen. Barruan zegoen gure jendea, leihoetatik tiroka. Baina matxinatuen hegazkinek bonbardatu egin zuten hura ere.

Eta zuek, orduan?

Soldaduok sakabanatu egiten ginen, eta ostera ere gure konpainiara itzultzen ginen. Horietako batean Bilboko alondegia aurreko etxe batean egon nintzen atsedeten. Hutsik utzi zuten, eta hantxe. Han lo egin, eta biharamunean irten egin genuen handik, errebeldeak hur zeuden eta. Bidean aurrera, Castro aldera abiatu ginen, jende ilara handiarekin batera: errepidea gizon-emakumez, umez eta soldaduz beteta zegoen. Castrora heldu eta jaten eman ziguten: arroza. Eta osterara ere batailoiak osatu ziren. Hainbeste atzera-aurrerarekin batailoiak desegin egiten ziren, eta berriak osatzen, euskal armadaren 84.a, 90.a edo dena delakoa. Ordurako ez zegoen batailoio abertzalarik, ez sozialistarik, ez ezer.

Nora jo zenuten hurrena?

Miereseraino [Asturias] heldu ginen eta, ordurako, batailoietan denetarik zegoen: han-hemengo jendea. Mieresetik ostera Santander aldera gentozela, Escudo gainean. Komandanteak agindua eman eta lehen lerrora nindoala hura eroatera, kanoikada bat, eta bost-sei metro atzera bota ninduen. Hiru saiheits hezur hautsi zizkidan eta Santanderreko ospitalera. Han hiru egun, eta italiarrak bertan sartzeko zorian zeudela esan ziguten. Handik zelan edo halan irten eta arrainontzi batera jauzi egin nuen, andre, ume eta soldadu artera, jendez gainezka. La Rochellera eroan gintuzten, eta han ilara bi egin zituzten: batzuk alde batera, gu bestera, Bartzelonara joateko. Indalecio Prieto zen Armada ministroa, eta eskiatzaile batailoia egin zuen Benasquen [Huesca] euskaldunontzat: dena zen uniforme eder, eski eta abar.

Euskaldunen eskiatzaile batailoia?

Bai, bai. Eta uste genuen festa hutsa izango zela hura! Ez alferrik, hilabete baino lehen, dena harrika bota eta Huescako frontera joan behar izan ginen. Hara heldu, egun bi egin, eta atzerantz egin behar ostera, Bartzelonara. Berriro batailoiak osatu, eta La Seu d'Urgellera. Hango konpainietan anarkistek eta komunistek agintzen zuten. Sarjentu administratibo izendatu ninduten.

Sarjentu administratibo? Zer gura du esan horrek?

Janariez, arropaz eta horrelakoez arduratzen nintzela. Aurrera baino lehen, zer gertatu zitzaidan kontatuko dizut. Batailoian janari-administratzaile ari nintzela, ikusten nuen ofizialek janari hartatik hartu eta erretagoardian saltzen zutela, edo bere kideei ematen zietela, edo truke egiteko erabiltzen. Batailoio osoarena zena euren probetxurako erabiltzen zuten. Eta protesta ja nuen, eta idatziz. Armadaren legea ezarri zitadaten, pistola kendu eta ziegara sartu ninduten, masia bateko ogia egiteko labera. Gainera, erretagoardiako behargin batailoietara zigortu ninduten, preso frankistekin batera, errepide egitera. Komandanteak esan zidan eskolta batek eroango ninduela hara, baina delako eskoltak bere agindua zuela ni harako bidean libre uztea, eta zegokidan erregimentura joateko La Seu d'Urgellera. 1939ko otsailaren 10ean Frantziara igarotzen ginen, Argeles-sur-Mer herrira, hantxe amaitu zen Espainiako Gerra Zibila niretzat.

Anaiak

Anaiak izan zituen

Anjel -kazetaria, Bilboko udal zinegotzia, *Bilbao* agerkariaren sortzaile eta Gabriel Arestiren solaskidea-, Rafael -"Errioaren margolaria", Espainiako akuarela sari nagusia, Salvador Daliren ikasle Cadaquesen (Girona)-, eta Gerardo, Radio Bilbaoko erredaktore 1936ko uztailaren 18an eta *Excelsior* kirol egunkariko kazetari.

Beharginen batailoietan eduki zintuzten beharrea.

Bai. Argeles-sur-Merrek hondartzetan eduki gintuzten hilabetean, txarto. Ez zegoen teilaperik, ez komunik, ez ezer. Eusko Jaurlaritzaren segituan hasi zen beharrea, guri laguntzen. Petainek ez zuen gura izan gu han libre ibiltzea, eta kanpamenduak egiteko agindu zuen. Agirre lehendakaria guretzako kanpamenduak Euskal Herriko hur egiten ahalegindu zen, baina hango herrietako buruek ez zuten gura. Azkenean, Gursen egin zuten delako kanpamendua. Lehen Mundu Gerrako barrakoiak aprobetxatuz, frantziarrak gehiago egin zituzten guretzat.

Noiz heldu zineten Gursera?

1939ko ekainaren 14an. 176 euskaldun heldu ginen hara, lehenengo euskaldunak. Dena dela, ni sei hilabete baino ez nintzen egon Gursen. Hura Oloroetik hur dago, eta nafarrak etortzen ziren, alpagata kanpaina egitera. Eta igandean, bizikletan etortzen ziren nafar haiek ikusmiran eta bisitan: "Zer edo zer behar duzue?", eta papertxo batean eskribitzen genuen: "Halako naiz, halako barrakoiaren nago, bizarra kentzeko xafla eta xaboa behar dut. Eta ontza bat txokolate ere hartuko nuke!"... Eta ondoko domekan han etortzen zen, gazte jendea gehiena, zer edo zer ekartzen zuena. Lagundu gura.

Sei hilabete egon zinela esan duzu.

Bai. Behin, bisitetako barrakoiara deitu ninduten. Joan, eta han gizon handi bat, eta neska bat. Frantziarra zen gizona, ingeniaria, eta neska, berriz, errefuxiatua, donostiarra; Adela zeukan izena. Fermin Calbeton kalean bizi zen. "Bilboko bat ezagutu nuen, zure familiaren auzoa izandakoa, eta *monsieur* Morini-ondoan zeukan gizona, alegia- esan diot ea hemendik aterako zaituen, guri laguntzeko". Frantziar hura sozialista zen, inondik ere, eta ondoko herrian, La Gerche-n, adreilu-fabrika zahar batean ehunka emakume eta neska jaso zituen; Espainiako errefuxiatuak, denak. Oheak egin zizkieten han, jaten ematen zieten... ederto zaintzen zituzten. Eta gura zuten nik haiei laguntzea, kontuak eroaten, janariak ondo banatzen. Eta *monsieur* Morinen etxera joan nintzen bitartean. Baina Bigarren Mundu Gerra etorri zen, eta Morin hura mobilizatu egin zuten -ingeniaria zen eta erreser-

bako kapitaina-, baita haren seme biak ere, eta bakarrik geratu nintzen etxeko andrearekin. Hura ez zen itxura ordea, eta nire familiarekin kontaktatu nuen Bilbon, zelanbait.

Eta etorri zinen?

Bai. Dotore jantzita nentorren, trajea soinean, eta maleta larruzkoa eskuan. Frontera heldu nintzenez, Hendaia igaro, eta zubian, guardia zibil eta falangista mordoa. Maleta gustatu zitzaizen, eta kendu egin zidaten. Eta Elgorriaga txokolate fabrikara eroan ninduten, pabilioi batera, gazte guztiak legez; ehunka izango ginen. Kontua da maleta kendu zidatela, eta bertan sartuta neuzkala nik dokumentu guztiak. Sakelari nerioan argazki txikerra baino ez zen salbatu. Han egun batzuk egin, eta bilbotar ginenok Deustuko unibertsitateara ekarri gintuzten, preso, dokumentu barik.

Deustuko unibertsitatea kartzela izan zen?

Kartzela, eta txarra, gainera. Ikusi ninduten -gaztea, agiririk ez...-, eta ez zuten askorik pentsatu behar izan. Hartu eta kamioira, beste hainbat gazterekin batera: Miranda Ebroko kanpamendura. Han beharginen batailoiak osatu ziren. Errenteria-Oiartzunen egon ginen beharrean: Gaintzurizketan, Babilonian, Aiako Harrietan... sei hilabetez. Gero, Mirandara berriz, handik Iruñera eta Iratiko trenera. Irunberrira eroan gintuzten, eta handik Bidankozera 38. beharginen batailoian: hiru sail zituen batailoi hark, lehena, gurea, Bidankozen zegoen; bigarrena, Igalen; hirugarrena, Erronkarin. Bidankozetik Igalera doan errepide berria egin genuen guk. Beste batzuek, Igaletik Erronkarira egin zuten. Oiartzunen, gutxi-asko jan egiten genuen. Nafarroakoa, berriz, ikaragarria izan zen. Felix Pardin gurekin batera ibili zen, eta momentu batean 38 kilo izan zen! Ni urte bi eta erdi egon nintzen beharginen batailoietan, eta gero soldadutza egin behar izan nuen, Ferrolen, urte bi baino gehiago. 1936tik 1943ra, etxetik kanpora ibili nintzen zortzi urtean.

Zertan dira aitzur eta palak, eta pikatxoia?

Pikatxoirik ez nuen nik sekula erabili, eta fusilik ere ez. Gerran ibili naiz, baina tirorik batere tiratu gabe. Pribilegiatua izan naiz, gero!



Itzultzeko garaian ere pribilegiatua?

Ez, orduan ez. Beldurgarria izan zen itzultzea. Deustuko unibertsitateko kartzelan, guardia zibilei nire fitxa ikusi nien: "Luis Ortiz de Alfau, *desafecto*", eta zirrimarra bat gainean. "Errepublikanoen semea". Legezko gobernuari leial izan nintzaiolako atxilotu ninduten, osterantzean ez zeukaten-eta nire gaineko batere berririk, Hendaian falangista hark niri maleta kendu, arropak berarentzat hartu eta paperak harrika bota zituelako. Han joan zen nire dokumentazioa.

Itzulera.

1943aren amaieran itzuli nintzen Bilbora. Eta behar bila hasi nintzen. Andreak pila fabrika batean egiten zuen behar, eta estu eta larri bizi ginen. Orduko denboran, gerra ostea zen, banketxe, udallete, diputazioek jenderik ez zeukaten, eta behargin eske hasi ziren. Baina Francoren alde behar egindakoak baino ez zituzten hartzen. Inon behar gura eginez gero, Vertical sindikatuaren halako zigilu bat eskatzen zuten. Nik ez neukan

“Eta etxea eman ziguten. Albokoa, guardia zibila. Gure gainekoa, gau adoraziokoa. Hirugarrena, sindikatukoa. Laugarrena...”

“Gerra ostea gerra bera baino txarragoa izan zen guretzat”

halakorik, jakina. Horretan, Uralita fabrikak beharginak eskatu zituen. Administratzaile azterketa egin zidaten, joan sindikatura zigilu eske, eta ezetz, *desafecto* nintzela eta ez zidatela zigilua joko.

Ezin beharrik egin.

Baina sindikatuan bertan, bulegoan ari zen neska batek aditu, nonbait, zelan ukatu zidaten agiria, eta etorri egin zitzaidan gero: "Begira, zuri zigilua jo behar dizun gizon honen aitak uniforme denda bat dauka Kolon Larreategi kalean, eta han izaten duzu arratsaldero, aitari laguntzen". Alegia, hara joateko esaten ari zitzaidan, Casa Manzano zen. Eta joan nintzaion, dirua eskainiz. 5.000 pezeta eskatu zizkidan, zigilua jotze truke.

Dirua 5.000 pezeta 1943an.

Bai, bada! Eta dirua batu nuen, senide eta adiskideen artean, ederto kostata, gero! Urte bi behar izan nituen zor hura pagatzen. Enpresan sartu nintzen, eta astiro-astiro diru gehiago irabazten hasi nintzen. Ezkondu ostean, lehenengo bes-teren etxean bizi izan ginen, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. Sukaldean

Azken hitza: 100 urte

"Suerte handia izan dut, ez dut kirolak ez antzekorik egin, baina optimista izan naiz beti, botila erdi beteta dagoela ikusi dut beti. Bizitzak arazo asko eta bihurriak dakartza, arazoak bata bestearen atzetik, horixe da bizitza, behin ere amaitzen ez den kaitean, baina behin ere ez dut nik optimismoa galdu".

janaria egin eta geure logelara ekartzen genuen, eta han jaten, gelan sartuta. Etxearen obra sindikalak 20.000 etxebizitza egin zituen San Inazio auzoan.

Ez zuentzat, horratik!

Ez, jakina! Orduko beharrak Francoren gerra egin zutenentzat izan ziren, eta etxebizitzak ere, eurentzat. Hala ere, "Saiatu egin behar dut!", esan nion andreari. "Zu zara, zu, zozo ergela!", esan zi-

dan. Baina eskabidea egin nuen. Eta egun batean, andreari etxera etorri zitzaion gizonetzko bat, eskabide hura zela eta. Andreak esan omen zion: "Ez ezazu denbora alferrik galdu. Nire gizonak Francoren kontrakoekin egin zuen borroka gerran". "Hara, bestea, horixe da egia esan beharra. Ez zait askotan gertatzen. Ziria sartu guran ari zait beti jendea. Bada, oraingoan neuk sartu behar dut ziria, zuen aldeko txostena egingo dut, etxea izan dezazuen". Eta etxea eman ziguten. Albokoa, guardia zibila. Gure gainekoa, gau adoraziokoa. Hirugarrena, sindikatukoa. Laugarrena... Eta hantxe bizi izan ginen erretiratu arte, gorabehera barik, gerraren gainean berbarik egin barik ibili ginelako. 40 urte igaro genituen ezpainak lotuta, arrainak bezain mutu, aditu eta isil.

Orain ez.

Ez, gehiago ez. Orain gerra kontatuz gura dut hil. Gerra gauza txarra izan zen, gerra guztiak dira txarrak, guztiok egin genituen okerrak, baina gerra ostea gerra bera baino txarragoa izan zen guretzat. 40 urtean gorriak eta beltzak ikusi genituen. ■



Kalean da apirileko

aizu!

- Sartaguda: ahanzturaren kontra, memoria
- Ipar Euskal Herria batasunerantz
- Juanmi Bravo, arin-arin
- Ander Arroitauregi, luthierria
- Euskal kulturaren Loraldia Bilbon

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**

aizu.eus

1.200



Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Gutxieneko soldata langileen oinarritzko sarrera bermatze aldera, mendebaldeko herri ugarietan eta, batik bat, Europar Batasunekoetan zabaldua dago aspaldian. Elite ekonomikoak eta pentsalari ofizialek soldata mailaren ezarpen minimoa langabeak lan merkatuan sartzeko oztopotzat hartzen dute eta langabezia igoarazten duen traba dela diote. Horien ustean, gutxieneko soldata zenbat eta garaigoa izan orduan eta zailagoa omen da enplegua sortzea eta, beraz, langabezia apaltzea.

Gutxieneko soldataren maila eta bere ondorioak herrialdeko soldataren ereduaren arabera dira. Frantziako Estatuaren gutxieneko soldata da Europako garaiena, bertan soldata medianoaren %61 baita soldata apalena. Beheko muturrean kokatzen da Txekia, %36 eskasarekin. Espainiako Estatuan 655 euroko gutxieneko soldata bertako soldata medianoaren %41 da. Hego Euskal Herriko soldatak garaigoak izanik, marra %36 inguruan legoke, Frantziakoaren mailatik oso urruti, beraz. Borroka luzearen ondoren duela urte bete eskas ezartzen hasi da apurka gutxieneko soldata Alemanian. Bertan legezatu den soldata minimoa hileko 1.473 eurokoa da, Frantziak duenaren parekoa, baina erlatiboki apalagoa da, bere soldata medianoaren %50 alegia.

Gutxieneko soldataren ezarpenak Alemanian izandako lehen eraginaren azterketan zalantzan ipintzen ditu bere aurka dauden iritzi neoliberalen argudioak. Bertako soldatapekoen %17 dago gutxieneko soldataren eraginaren menpe, batez ere jarduera murriztua eta partziala dutenak dira baina baita ere denbora osokoen arteko %10.

Gutxieneko soldataren ezarpenak gainerako soldaten goranzko presioa eragin du, batez ere hainbat zerbitzu

Ikasbide egokia da Alemaniako esperientzia, batez ere emakumeei eragiten dien soldata pobrezari aurre egiteko. Espainiako Estatuak 1980an sinatu zuen Europako Gutun Sozialak pobrezia ataria batez besteko sarrera erabilgarrien %60 dela dio. Mugarri hori Hego Euskal Herrian aplikatuko balitz gutxieneko soldata gutxi-asko 1.200 eurokoa litzateke. Hori da euskal gehiengo sindikalak aldarrikatzen duen oinarria

jarduera arruntetan eta kualifikazio gutxiko lanbideetan. Bestalde, soldaten igoera honek ez du eraginik izan inflazioan, prezioek ez baitute igoera nabarmenik izan. Horrenbestez, gutxieneko soldatak Alemaniako azken 15 urteetako soldata errealean igoerarik garaiena ekarri du 2015. urtean.

Goiz da oraindik, neurri horrek Alemaniako enpleguan izandako eragin osoa zehazteko. Estimazio ofizial gehienetan enpleguaren galerak aurreikusten ziren. Gobernuak ehun mila lanposturen galeraz hitz egin zuen eta Info Instituto neoliberalak miloi eta erdira igo zuen estimazioa. Baina, enpleguak 2015. urtean %2 igotzen jarraitu du, *minijob* direlakoak gutxieneko soldataren ezarpenaren eraginez %1,7 jatsi diren arren. Gainera, langabeziak beharantz egiten jarraitzen du Alemanian. Laburbilduz, soldaten eta enpleguaren igoera horiek BPGren hazkundearen kausa nagusia aldarazi dute: etxe ekonomien kontsumoa da dinamizatzaile garrantzitsuena kanpo merkatuen gainetik.

Ikasbide egokia da Alemaniako esperientzia, batez ere emakumeei eragiten dien soldata pobrezari aurre egiteko. Espainiako Estatuak 1980an sinatu zuen Europako Gutun Sozialak pobrezia ataria batez besteko sarrera erabilgarrien %60 dela dio. Mugarri hori Hego Euskal Herrian aplikatuko balitz gutxieneko soldata gutxi-asko 1.200 eurokoa litzateke. Hori da euskal gehiengo sindikalak aldarrikatzen duen oinarria. Baliteke neurri bakar hori nahikoa ez izatea soldata pobrezia borrokatzeko baina bere aplikazioak asko lagunduko luke helburu hori erdiesten. Justiziazkoa ez ezik lan merkatuaren narriadura eta atzeraldiaren aurkako faktore dinamikoa izan liteke, Alemaniako ereduak erakusten duen legez. ■

Etsipena eta itxaropena

garo zen Aberri Eguna. Barkatu, baina Francorekin hobek ziren. Haiek bai aberri-egunak! Ala gazteagoak eta fede sendoagoak (edo inozoagoak) ginelako ote zen? Dena den, ez ditza-gun mamuak berpiztu, eta behean bego aipatua, ondo dago eta!

Zintzo esanda, azkenaldian poz gutxi samar ematen didate alderdi abertzaleek, etsipenak gehiago. Urtea joan eta urtea etorri, zeinek du aldarrikaturiko helburuak lortzeko estrategia zehatzik, plangintzarik, bide-orririk, bidaiderik, eperik? Triste da, baina Aberri Egune-ko adierazpenak umorez eta etsipenez hartu ohi ditut. Dena den, badira bi argi-izpi zerumugan: lehena, Ahal Dugu/Podemosen jarrera Erabakitze Eskubidearen alde. Eta bigarrena, eskubide hori erabiliz datozen hilabeteetan zenbait herri eta eskualdetan egingo diren bozketak.

Lehena are garrantzitsuagoa da, PSE/PSN/PSOeren jarrerak ikusita. Zergatik ote da gurea "obsesio soberanista eta identitarioa", baina ez espainiar nazio handi bakarraren subiranotasuna bai ala bai inposatzea –Estatuaren aparatu guztia lagun, armada barne–, erkidego bateko edo besteko biztanleen gehien-goak besterik nahi izanda ere? Zergatik Erabakitze Eskubideak banatu egi-



Iñaki Mendiguren

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA

PSE/PSN/PSOeren jarrerak ikusita: zergatik ote da gurea "obsesio soberanista eta identitarioa", baina ez espainiar nazio handi bakarraren subiranotasuna bai ala bai inposatzea, Estatuaren aparatu guztia lagun, armada barne?

ten du gizartea, *statu quo* mantentzeak edo beste edozein hauteskunderen bantzen ez badute? Zergatik hitz egiten da gure "etnizismo eksklusibistaz", boto-eskubidea berme eta balio berekoa bada

biztanle guztientzat, euskal abertzale sutsua nahiz espainiar nazionalista amorratua izan?

PSE autodeterminazioaren aldeko pankartaren atzean ibili zeneko garaiak ahaztuta, Ahal Duguren jarrera berri-tzailea da, ezin demokratikoagoa; jarrera gotortu, blokeatu eta zaharkituen aurrean, haize fresko eta gaztea. Bejondeiela!

Bestalde, zuzenean edo zeharka Gure Esku Dagoren ekimenez, laster botoa emateko aukera izango da hainbat herritan. Aintzatespen ofizialik gabe, balio sinboliko eta morala izango dute; baina gauzak ondo egiten badira, balio pedagogiko handikoak ere izan daitezke. Hortxe ikusten dut erronkarik handiena: jende guztiari (ez gure sokakoei bakarrik) garbi azaldu behar zaio zergatik biziko ginatkeen hobeto burujabeago izanda, gurea geure gain hartuta.

Lan handia dago egiteko gehiengo garbiak lortu nahi badira! Ahaztu egiten dugu sarri, baina Eskozian edo Quebecen bezala botoa emateko garaia iristen denean, berdin balio dute boto guztiek, ausartenek eta beldurtienek, daukagunari eustea da minimoa, eta hori galtzeko beldurra erraz ereiten duten hazia da. Hobe genuke ez ahaztea ustekabe muturrekorik ez jasotzeko! ■



Liburu azoka

Amurrion, apirilaren 14tik 17ra Juan Urrutia plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

ASEGARCEren ASPERENAK (eta konpainiarenak)



Koldo Aldalur
ETB-KO KAZETARIA

Ez dakit edadearen kontua ote den edo bipolartasunarena, baina garai batetik hona erabat aldatzen ari zait ustez bakarria den errealtatearen pertzepzioa.

Arestian, arrazonamendu oro, oraingo sukaldari emultsionatu horiek bezala, etereoa, harrotua egiten zitzaidan. Eta, jakina, ez nuen sinesten.

Orduan esan izan balidate Euskal Telebista eta Baint konponduko zirela Bilboko promotorak bere arrautzak jar zitzaizkien txoritxoaren lehen kateko habian eta hainbat pilota jaialdi beraiek eskainiko zituztela "gurean", ez nukeen sinetsiko Arantzazuko Ama Birjinak albistegietan baieztatu zuela esan izan balidate ere. Baina hala da, eta hemendik atzera parean jarritako dena sinesteko prest nago.

Urteetan ibili ziren gu nondik izorratuko, besteak beste, ASPEk bere sorreran izan zituen diru laguntza publikoak aitzakiatzat hartuta. Lankideen artean xextran, aizue, inon aginduko bagenu bezala.

Sinesten duenak ez duela zalantzarik diote. Nire sinesmena ez da hain itsua izango pilota jaialdietan ikusitakoa ikusita, zalantza eta kezka gainetik kendu ezinik nabilenez.

Arrazoitu dezadan azken hau, bestela, izandakoa gogoratzetik bizi diren pilotari ohi nostalgikoen tankera goibela hartuko dut eta.

Orain aspaldi ez dela, afizionatu mailan beste guztien gainetik koska eta erdi gorago egon behar izaten zuen pilotari gazteak, profesionalentara pauso bat, eta ez saltoa, emateko. Zalantza dut gaur egun hori hola den.

Egia da pilota enpresek kostuak gutxitu behar dituztela. Sarrerak urrituta, apustuak laurdenera etorrira eta publizitatea ere hor nonbait, pertsonalean aurreztu beharra dago aurrekontuak koadratzeko, eta ondorioz, koadroaren maila asko jaitsi da.

Nola moldatu ordea enpresaren logikatik? Oraindik sasoiko dabiltzan beterano ustez garestiak kendu, eta kontratua aurrean jarritakoan beti baiezkoa esango dizun zaildu gabeko gaztea jarriz haien lekuan. Etxekalte.

Ondorioak aise topatuko dituzu Binakako Txapelketako partidak hartu dituen hainbat jaialdiri begiratzen badiezu: partida nagusi txukun antzekoa eta, beste erremediorik gabe, kaxkarxeagoko beste bat, sarreran kobratutakoa justifikatzeko, jaialdia osatzeko. Hitzak berak dio, osatzeko, osatzeko balio duena, berezko entitaterik eta erakar-garritasunik gabeko partida. Makillaje lana.

Eta gainera aipatutako partida nagusietan lehia gogor eta luzeak eragindako hainbeste lesio eta estrategia direla medio, azkenean, ez dakizu zein zen titularra eta zein haren edo haien ordekoa. Merke-zurrean ibiltzeak horixe dakar. ■

Citta dolente



Itxaro Borda
IDAZLEA

Parisko multzo hilketa odoltsuen ondotik, hona Brusela, bihotzean kolpatua: Dante miresgarriaren infernuko aurreneko kapitulueta igeri zebiltzala, uste bide zuten hiritarrek Zaventemeko aireportuan edo Maelbeek metro geltokian harrapatuak suertatu zirenean: "Hemen sartzen denak esperantza mikoa atarian utzi beza". Menturaz, jagoitik, Bruselan ere, behin dastatu genion libertate zapora hura mikaztuko da.

Lagun euskaldunekin gaia aipatzean leku berdinerara goaz, etengabe: Bataclan bai, Brusela eiki, baina ez ahantzi otoi Siria, Idomeni, Irak edo Kurdistan: Europak han sua zerutik isurtzen du.

Sortaldeko hiri zaurituen auhena, halatan, ezin dugu absolutuan kontsideratu eta solasek egundainokoan erlatibizatzen akuilatzen gaituzte, zapalduenekiko elkartasunaren haize-parpaila airean.

Alepen, Kobanen edo Bagdaden bizidunek parean aurkitzen duten lehen etsaia Daesh ankerra da. Paris eta Brusela sarraskitu dituen erakundeak preseski. Kaosa eta gune grisak barreiatzen doazen terroristen ekintzak beraien biluzian salatzeak direla iruditzen zait ekialde sufrituan gertatzen diren itsuskeria lerroak bezain.

Dantek absolutuaren zintzotasunaren berri eman zigun. ■

MATXINADA

XVIII. mendeko suminduak

1766an herritar xumeen errebolta Urolako eta beste hainbat txokotako bazterrek sutu zituen. Gosearekin espekulatzen hasita zeuden jauntxoekin haserre, berdintasunaren bandera jaso zuten. Entziklopedia handietan hala ere, matxinada hura zapaldu zuten kapitalisten izenak baizik ez dira ageri, ilustrazioaren jantzia soinean dutela. Apenas dagoen literaturarik euskaldun pobreentzat.



Urko Apaolaza Avila
@urkoapaolaza

Azkoitiko Egurbide burdinola parean “Geldi! Geldi!” entzun zuten bi emakume zamazainek. Bidera ateratako olagizon eta zapatariak deliberaturik zeuden bihez kargatutako asto haiek herrian geratuko zirela. Apirilaren 14a zen, ilunabarrerako Azkoitia eta Azpeitiko jabe ziren matxinoak eta hurrengo egunetan Urolaldera ez ezik, Gipuzkoa osora eta Bizkaia eta Arabara zabaldu ziren iskanbilak. Ogiaren prezioa jais-tea zen eskari nagusia, baina ez hori bakarrik, herri gosetu batek handikien gehiegikeriei emandako erantzuna ere izan zen.

250 urte igaro dira matxinada hura gertatu zenetik. Gutxienez mende bat atzera zeterren erro sozial anitzeko kapila eta zikulusaltsa kate luze baten beste begi bat izan zen. XVII. mendean Matalazen egiazko xiberutarrak lurra- ren pribatizazioaren aurka jaiki ziren antzera, ekin zien baserritarrek jauntxo librekanbistei XVIII. mendean.

Europar halakoak gero eta maizago gertatzen ari ziren. Ingalaterran herri-lurren itxiturak, Eskandinavian zer-

ga-biltzaileak, Oporton likoreen monopolioa... Kalera ateratzeko arrazoirik ez zitzaien falta ogia besterik ahoratzerik ez zuten maizter eta soldatapekoei. Frantzia 1724tik 1789ra herritarren 100 altxaldi kontatu zituen Daniel Mornet literatur kritikoak, horien erdia azken 25 urteetan. Ez alferrik ebatzi zuen liberalismo ekonomikoak dena dela negozio, baita sufrimendua ere.

Matxin hitza Martinetik datorrela uste da, olagizonen santua, eta 1718an erabili ei zen lehen aldiz. “...‘Esku’ itzetikan bezain / zuzen eskukada / ‘matxin’ itzetik datoar / zuzen matxinada...”, idatzi zuen Orixek *Euskaldunak* poema nazionalan. Ordukoan aduanak kostara eta Pirinioetara aldatzea izan zen matxinada piztu zuen txingarra, lehengaiei zergak gehitzea alegia; 1766an, berriz, trafikanteei jakien salneurriekin jolas egiteko emandako errege-baimenarekin egin zuen gainezka eltzeak. Batean zein bestean, tripa-zorriak haztea beste aukerarik ez zuten nekazari eta langile txiroek ordaindu zuten lukurreraren bide-saria.

Gariarentzako bi neurri



Kanpandorreko ezkilak dilin-dalan ari dira Azkoitian, badatoz auzoetakoak, matxinoen deiari erantzunez. Eta jauntxoek men egin dute ileordea kenduta, ez dutela kanpora alerik eramango hurrengo uzta etorri bitartean. Gari-kutxak eta trojak gainezka zituzten moila bidean, esportaziotik irabazia biderkatzeko asmoz.

Urteetako amorrua ez da promesa batekin baretzerik orde. Aldameneko Azpeitian ere asaldura handia sortu da arratsean itzalak luzatu direnean. Herri batetik bestera dabilza matxinoak, hemen Beizamakoak, han Urrestillakoak, Loiolako santutegia egiten ari diren harginak... Azpeitian handiki batzuen etxeetan sartu dira eta alearentzako neurriak pilatu dituzte plazaren erdian puskak egiteko: “Bi neurri baitaude, alea erostekoa eta saltzekoa, eta biak erabiltzen direnetik handiagoa besteek ogia ordaindu ahal izateko nekea”, dio Iñigo Aranbarrik *Txanton Garrote agertokitik jaitsi zen eguna* (Pamiela, 2016) liburu bikainean.

*Irudi muntaia honetan,
Peñafloridako kondearen
Azkoitiko Insausti jauregia ageri
da alde batetik, eta Frantzian
XVIII. mende amaieran gertaturiko
errebolta baten grabatua bestetik.*



MATXINADAK EUSKAL HERRIAN



Aranbarrik gertutik ikertu du 1766an jazotakoa, lehen eskuko iturrien eta literaturaren bidez, matxinadaren kronika osatzeaz gain, lehenengo eta gaurko gizarte klasistari kritika zorrotza egiten dio idazle azkoitiarrak: “Gobernu-bide okerra: agintariak *hagintari* bihurtzen dituen jardunbide hori”.

Garai haietako Azpeitiko ekonomia-ri argazki zehatza egin zion Ildefonso Gurrutxagak 1933an *Yakintza* aldizkari euskaltzalean, matxinadaz idatzi artikulua aitindarian. Historialariak zihoen burdinolak erabateko dekadentzian eta baserritarrak Erdi Aroaz geroztik egoera gorrienean zeudela. XVIII. mendean bost baserritak lau maiztertzan emanak zeuden herri hartan; ugazabek nahiago zuten erretoa garitan kobratu eta aletegiak lepo eduki, maizterrek eguzkia gosaltzen zuten bitartean. On-

dare kontzentrazio izugarria zegoen: Azpeitiko bederatzi lurjabeek –tartean, noski, Enparandarrak, Narrosko marka, Basazabal alkatearen familia...– herriko errentaren ia erdia pilatzen zuten. Ez da harrizkoa *Occupy* antzeko mugimendu bat sortzea duela bi mende eta erdiko Izarraizpe hartan, “%99 gara!” oihuaren oihartzuna ere entzun liteke hemendik, imajinatzen hasita.

“Ez dago gu ez beste alkaterik!”

Historialariek 1766ko matxinada lotu izan dute Madrilen Esquilache markesaren aginduen kontra martxoan hasi eta Espainiako erreinu osora hedatutako herri-althamendurekin. Baina burdin-biderik ere ez zegoen garaian zentzuzkoagoa da pentsatzea gure herri eta auzoetako penak eta ezinak izan zirela suminduraren haztegia. Lehenago ere

Azpeitian eta Azkoitian bilera sekretuak eginak zituzten Donostiako merkatarien biltegiak erasotzeko.

Apirilaren 9an paskin anonimo bat azaldu zen, Donostian sinatua: “*Azpeitiko jaun guciac, adi zazute au ondo, bana eguin bizate onec diona, bestela galduac guera eta (...) chit contrarioa zan jendia- ren il emen dituzte guizonac edo machino oriec*”. Anonimoak dio errebolta jandak hasita dagoela, matxinoek eraso egin dutela eta Azpeitira bidean doazela orain, merketzeko arren arto eta garia, “ez ditut esan nahi guciac”. Bistan da engainua dela, matxinada hasi baino egun batzuk lehenago idatzi baitzen, baina sumatzen zen atsekabearen frogaz ezin garbiagoa dugu.

Sedizio-gutuna idatzi izana leporatuta Urrestillako eskribau gazte bat atxilo hartu zuten Azpeitiko alkate Vicente Basa-

zabalen aginduz. Askatzeko mutila, hori izango da apirilaren 14an Azpeitiko udaletxean arrapaladan sartu ziren olagizon eta beste abarkadunek eskatutako lehengo gauza. Joseph Joaquin Enparan herriko boteretsu eta Gipuzkoako diputatu nagusiak errespetua exijitu dio aztoratuta dabilen haietako gizagaixo bati, kentzeko kapela Justiziaren eta alkatearen aurrean: “Zer alkate eta zer deabru! Ez dago gu ez beste alkaterik!”, bere erantzuna. Non entzun dugu hori? Alkaterik onena, lehendakaririk onena, herria.

Biharamunarekin, udalen kapitulazioak errenkadan datoz: Azkoitian lehenik, Azpeitian ondoren, gero Deban, Getarian... Herri bakoitzean sinatutako kapituluek tokiko problematika sozialei erantzuten diete. Getarian, esaterako, herriko semeak derrigorrez armadan itsasoratzeagatik kobratu beharreko konpentsazioa handitzea eskatu zuten, edota kaiko etxola berriz publiko izatea, Sardinazaleen Konpainiak erabili ahal izateko. Kostako herrien kasua ikertu duten Xabier Alberdi eta Carlos Rilovaren aburuz kapitulazio horiek “klase izaeraren lehen kontzientzia zantzu bezala har ditzakegu”.

Denek bozka dezatela

Giroa bero dago oraindik Azpeitian, ia astea igarota igandeak kuku egin duenean: “*La tarde de dicho domingo la gente estuvo más insolente que nunca*”, dio Narrosko markesak bere testigantzan –Aranbarrak libururako erreskataturiko dokumentuan leitu daitekeenez–. Azkoitiko primizieroa “hil eta erretzeko” zorian izan direla ere agertu du izuak jota. Zerga-biltzailea begitan dute, denen zergekin katanarra gizentzen duen zalduntxo banoago.

AZPEITIKO KULTUR MAHAIAK URTEURRENA GOGORATZEKO EGITARAU ANTOLATU DU

“Oso lausotuta iritsi da gure herriaren aletxo hau gaurdino. Horregatik, bada garaia gertaera hauek ezagutu eta herriratzeko”. Azalpen horrekin ekin dio Azpeitiko Kultur Mahaia 1766ko matxinadaren 250. urteurrenoko egitaraua antolatzeari, Azkoitiko *Maxizatzen* aldizkaria eta Azpeitiko Udalarekin elkarlanean. Apirilaren 14an egingo dute aurkezpen ofiziala.

Ildefonso Gurrutxaga historialari eta abokatu azpeitiarrak 1766ko gertaerez osatu zuen testua berrargitaratu eta euskaratuko du Udalak eta urteurrenaren egun berean aurkeztuko dute. Era berean, Kultur Mahaia Udalarik proposatu dio kale bati “Matxinadaren kalea” izena jartzeko.

Erakusketa ere antolatu dute. Hainbat paneletan dokumentuak eta eraikin historikoen argazkiak paratuko dituzte; Azpeitian eta Azkoitian egongo da ikusgai.

Eta maiatza eta ekainean hitzaldi zikloa dute aurreikusita, gaian adituak diren historialari eta idazleekin.

Izaera iraunkorragoa duten beste ekimen batzuk ere baditu Kultur Mahaia, hala nola eraikin historikoen ibilbidea eta transmisioa lantzeko udalekuak. Urte amaieran, berriz, Imanol Eliasek matxinadari buruz egindako obra abiapuntu hartuta ikuskizun bat oholtzaratzeko lanean ere badabilta.

Matxinadie Azpeitiko Gaztetxean

Azpeitiko Gaztetxeko kideek urteurrenari buruzko euren irakurketa plazaratu dute *Uztarria*-n. Orduko eta gaurko egoerak oso pareko ikusten dituzte: “Lehen gariarekin espekulatu zuten modu berean espekulatu dute gaur egun ere hazi eta elikagaiekin, etxebizitzekin edo gure aurrezkiekin”.

Eta behin kapitulatzen hasita, hordago handira: maiorazko handiak mugatu eta denen artean banatu behar direla ere eskatu dute matxinoek, eta udaletxe irekiak egin behar direla “...y que todo el mundo debia tener su voto”, markesak konta, harri eginda. “Mexiko iraultzaileko Ayala Plan bat 1766an? –dio Aranbarrak– Nekazaritza erreforma bat? Zer gaude, Espainiako II. Errepublikan ala? Sovieta Urolaldean?”. Ez. Laborariek lehen kendutakoa eskatu besterik ez dute egin.

Elite ekonomikoak monopolizaturik zuen erakunde publikoen kontro-

la azken aldia, ez denen onerako, euren interesetarako baizik –haren bidez egindako harreman-sareak zituzten zeharkako diru iturri–. Akabo herri batzarrak edo udaletxe irekiak, kito demokrazia zuzena. XVII eta XVIII. mendeetan baldintza ekonomiko ezinezkoak ezarri zituzten herritar xumeek kargu publikoak ez izateko, “gutxieneko” ondarea edukitzea nagusiki. Adibidez, Goredolan 400 dukat behar ziren alkate izateko, Oñatin 500 eta Azkoitian 200.

Kontrol soziala ezartzen zen ziskuari soinua atereaz, baita hizkuntza menderatzailea inposatuz ere. Gaztelania edo

1766-2016 Gariaren matxinada

Historia berrikusi, ezagutu eta zabaltzeko urteurrena



erromantzea jakin behar zen jauregi kontuetarako. Horrela, Joxe Azurmendik *Espaniolak eta euskaldunak* maisulanean dioen moduan, “oposizioa eliminatzeko beste tranpa bat asmatu zuten jauntxoek”.


Baina baldintza hori betetzea ezinezkoa zen, gehien gehienek –baita herrietako jauntxoek ere– *lengua vulgar vascongada* deitzen zitzaion zera hori baino ez zutelako hitz egiten; ez herri gutxitan agintariak euskal elebakarrak ziren, erdaraz zekien inor ez baitzegoen. Horietako asko inhabilitatu egin zituen administrazio zentralak –Zaldibiako alkatea, adibidez, kargutik kendu zuten 1742an, espainolez ez zekiela–, eta gatazka sozialak izaten zirenean arazo larria sortzen zen. Bitxia da ikustea matxinada garaietan euskarazko dokumentuak nola ugaltzen diren batzar nagusietan eta udaletan. 1766an Azpeitiko kapitulazioak ere euskarara itzuli zituen bertako abadeak, denek ulertzeko moduan.

Eskarmentua

Autoritatearen aurrean kapela kendu? Denbora askoan agoantatutako umiliazio bera pasarazi zieten apiril zaratsuotan pobreek aberatsei: honi ileordea kenarazi zioten, beste hari eskuak musukatzeraz behartu, hark abarkak eraman behar izan zituen soinean eta “baserritarren” eran dantza egin. Biolentzia eta mehatxua bai, baina batez ere maila sinbolikoan oligarkiaren esplotaziotik liberatzeko keinuak ziren haiek. Prozesioak egin ziren eta garaipena ospatzen aritu ziren ordu txikiak arte.

Azpeitian, erretoreak auresku eta atzesketan direla, soka-dantza osatu dute “genero guztietako jendeek, inolako desberdintasunik gabe”, berrehun edo gehiago dira, *euskal igualitarismoa* praktikatzen.

Marra gorria igarotzea ez diete barkatuko beti herriaren buru gainetik ibili diren horiek, deitu handiki, ilustratu edo kasta. Aranbarrik ederki identifikatu du klasismo hori Peñafloida kondearen *El borracho burlado* operan, matxinada baino bi urte lehenago estreinatua. Ez da diru kontua soilik, auzi moralak ere bada: txepetak karrastarro bihurtu nahi izan du, opera horretako Txanton Garrote mozkiak amestu bezala, eta hark eskarmentua jaso zuenez jasoko dute hauek ere. Eskarmentua 1766ko



APIRILA BLOGA / INIGO ARANBARRI

Azkoitiko presoeren zerrenda dakarren dokumentua. Erbestea, kartzela eta isunak jasan zituzten horietako askok.

Urolaldean, eskarmentua 1936ko Nafarroan, eskarmentua 2015eko Grezian.

Frantziako Xabier Munibe, Peñafloridako konde eta Euskalbarriaren Adiskideen Elkartereko fundatzailea Iturriozko bentan da apirilaren 24an, Donostialdetik joandako tropei ongi etorri beroa egiteko. Irlandako erregimentuko 300 soldadu dira, gehi Errenterian, Oiartzunen, Urnietan eta Hernanin errekluta-

Marra gorria igarotzea ez diete barkatuko matxinatuei beti herriaren buru gainetik ibili diren horiek, deitu handiki, ilustratu edo kasta

turiko 1.500 lagun, Donostiako alkate Manuel Maria Arriolaren agindupean. Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarreko merkatariek finantzatutako ikuskizuna hastera doa.

Loiolara jo dute lehenik, hango beharginak nabarmendu dira sesioan, eta lanean ari direla harrapatu dituzte guztiak ezustean. Santutegiko erretorearekin eztabaida piztuko da orduan, matxinoen alde daudela leporatuko baitie korrejidoak jesuitei, aitzakia polita ordena deserosoa behingoagatik Espainiako erreinutik kanporatzeko.

Urola eta Deba arroetan iraultza txikia itzalita dago jada, baina zerrenda beltzak ere aspaldi osatuta. Denera 70 lagun atzemango dituzte eta ilaran lotuta eraman, oinez, Donostia eta Errenterian kartzeletara –bat bidean hilko da eta beste bat ihesari ekitean baionetekin larri zaurituko dute–. Errenterian giltzapetutako asko emakumeak dira: Maria Antonia de Alberdi, 51 urte; Michaela de Larrañaga, 33 urte; Mari Josepha de Urquina, 38 urte; Ana Maria de Elorza, 50 urte; Maria Brigida de Arteaga, 26 urte –haurdun zegoelako etxera bidalia–...

Matxinadetan emakumeen papera ez da nolana hikoia izan, berdin 1718ko erreboltan, nola Lapurdin 1773an eta 1784an tabakoaren monopolioaren kontra izandako altxamenduetan. Ja-torri sozialeko gatazkak ziren eta etxeko ekonomia zama beregain zuten ertzeko horiek nozitu zuten gehien oligarka berrien eraso. 1766an zurrumuruak zabaltzea leporatu zieten batez ere: matxinada izan eta urtebete geroago hainbat emakume prozesatu zituzten, denda eta ogi-labe inguruetan bilduta esan omen zutelako jesuitak Loiolara itzuliko zirela.

Aranbarrik 439 kondenatu aipatzen ditu bere liburuan. Askorentzat kartzeladia, beste askorentzat erbestea, derri-gorrezko lanak eta zerbitzuak, isunak... Ez ziren epelkeriatan ibili sasi-epailak, apirilaren 14an Azkoitian matxinada hasi zuten hainbat lagun kalean ibilarazi zituzten ahoa eta eskuak lotuta eta zigor kolpeka. Gero, hamar urteko desterrua Afrikako kartzela ilun batean, bizirau-terko esperantza askorik gabe. Akordatu al da inor, orain arte, haien omenez karreharrizko eskulturarik egitea? Sikiera plakatxo bat merezi dute kaleren batean. ■

Blanca Estrella Ruiz Ungo

“EMAKUMEEK EZ DUTE BIZIA ARRISKATU BEHAR NORBAITEK BORTXATZEN DITUENEAN”

Hankak “ongi itxi” al zituen galdetu zion Gasteizko epaile batek sexu eraso salatzen joan zen emakumeari; eta ez da kontu isolatua. Salaketa jarri eta ondorengo prozesu judiziala bortitza izan ohi da. Hala uste du Blanca Estrella Ruiz Ungok, Clara Campoamor elkarteko zuzendariak. Beraiek izan dira hain zuzen ere gertatutakoa salatu dutenak. Ruizek argi ditu gauzak Gasteizen jazotakoaz, prozesu judizialez eta horrek sortutako kalteez.



Malen Aldalur Azpillaga
@malenaldalur

Justizia inpartziala omen da.

Legeari ez zaio ezer falta, justizia soilik.

Hankak ez zituela “ongi itxi” leporatu zion epaileak. Ezetz esatea ez al da nahikoa?

Ezetz, ezetz da. Biktimak ez du zertan bere bizitza arriskuan jarri. Kontatu behar duena da ezetz esan zuela, eta ezezagun batek, edo berarekin garrardo bat hartzen egon zen lagun batek bortxatu egin zuela. Gasteizko epaileak hankak ondo itxi al zituen galdetzeak ezetz ezetz dela dioen teoria pikutara bidaltzen du. Hobeto ulertzeko “igogailuko bortxatzailearen” adibidea jartzten dut beti: kartzelatik askatu zuten zigorra bete aurretik, eta irtendakoan



MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Valladoliden 54 emakume bortxatu zituen eta 11 Salamancan; eta bi hil zituen. “Nahi baduzu hil egingo zaitut”, “aurre egiten badidazu hil egingo zaitut” bezalako esaldiak esaten zizkien emakumeei; hala kontatu zidaten haien familiakoek. Denek entzun zituzten esaldi horiek eta denak bortxatu zituen, baina gainerakoak behintzat bizirik daude.

Erresistentzia edo biziraupena.

Defendatu zirenak heroiak izan ziren, baina haien gurasoek ez zituzten heroiak nahi, alabak bizirik nahi zituzten. Emakumeek ez dute bizia arriskuan jarri behar norbaitek bortxatzen ditueanean, ezetz esatea nahikoa behar luke izan. Eta horregatik, halako esaldiek argi erakusten dute sentsibilitaterik eta formakuntzarik eza. Ez dakite zer den bortxatua izatea. Zerbait jakingo balute ez litzaieke inoiz burutik pasako halako galderarik egitea.

Emakumezkoa zen epailea.

Lehenengo batean galdetu zidaten ea gizonzkoa balitz halako adierazpenik egingo lukeen, eta argi erantzun nien ezetz. Epaile gizon bati ez litzaioke burutik pasako halako adierazpenak egitea, badakielako jan egingo luketela, ez beste ezerengatik. Emakume batek egin ditu adierazpenok, eta geuk bakarrik altxatu dugu ahotsa.

Bortxaketak justifikatzeko maiz erabili izan dira aitzakiak, hala nola, emakumearen janzkera. Baina antzeko justifikazioak epaile baten ahotan esanguratsuak dira.

Gogoan dut Katalunian “Kataluniako minigona” deituriko kasu bat egon zela, zeinetan emakumeak gonamotza jantzita izateak epaiketa baldintzatu zuen. Beste kasu bat Murtzian. Epaileak ez zuen erasotzailea zigortu, bortxaketaren aurretik biktimari erasotzailearekin taberna batean muxuak ematen ikusi zutelako. Zentzurik gabeko bi epaiketa izan ziren; eta horregatik hasi genuen “ezetza, ezetza da” kanpaina, gerora instituzioek ere erabili dutena.

Prozesu judiziala bigarren bortizkeria aldia izan daiteke?

Bai. Errudun sentiarazten zaituzte, galdera gutxi eta kontu eta sentsibilitate handiz egin beharrean, galdera bat bestearen atzetik egiten dizute. Onartezina da, izan ere, badaukagu biktimaren es-

“Uste dut fiskalek berebiziko garrantzia dutela bortxaketa kasuetan eta ez direla euren lana ondo egiten ari. Fiskaltzak zuzenbide estatua ordezkatzan du, eta beraz, biktimari”

“Epaile gizon bati ez litzaioke burutik pasako halako adierazpenak egitea, badakielako jan egingo luketela, ez beste ezerengatik”

tatutua zeinetan argi azaltzen den harkikoa izan behar den jarrera, bereziki tratatu txarretan eta bortxaketetan. Clara Campoamor elkarteak Gasteizko salaketan jarri du bertako paragrafo bat.

Galdeketa aipatu dituzu.

Itaunketa erasotzaileari egin behar zaio, ez biktimari. Gertatutako guztia azaltzen du biktimak salaketa jartzerakoan, hortik aurrera galderak erasotzaileari egin behar zaizkio. Bukaeran, agian epaileak zalantzak izan ditzake, eta orduan, gertatutakoa egiaztatze aldera, biktimari galdera bakan batzuk egitea ez zait gaizki iruditzen. Baina erasotzailea galdekatu ondoren, eta noski, sumarioa irakurri eta gero. Izan ere, nik uste Gasteizko epaile honek ez zuela salaketa irakurri ere egin.

Salaketarekin hasi besterik ez da egiten, beraz, prozesua.

Gasteizko Udaltzaingoan jarri zuen salaketa, gertatutakoa zehatz-mehatz kontatu zuen, behin eta berriz. Goizeko 11:00etan eman zioten hitzordua epaitegian eta arratsaldeko 16:00etan hartu zuten. Ordu horietan leihorik gabeko gela itxi batean egon zen bera bakarrik,

eta eskerrak, gutxienez, gela batean itxaron zuen, ez baita beti hala izaten. Batzuetan korridoreetan lagatzen zaituzte eta erasotzailea eta haren gertukoak pasatzen ikusi behar dituzu behin eta berriz.

Eta azkenik epaiketa.

Bai. Eta gainera, hankak itxita eduki al zenituen entzun behar. Onartezina da, eta hori gutxi balitz ez zioten urruntze agindurik eman. Zertarako balio izan zuen orduan prozesu guztiak? Biktimari bermeak eman behar zaizkio, eta gisa honetako epaiketekin ezinezkoa da bermeak ziurtatzea.

Badirudi justiziak lupa erasotuarengan jartzen duela, eta ez erasotzailearengan.

Lehen aipatu bezala, behin eta berriz egiten zaizkio galderak biktimari. Erasotzailearen abokatuak bere hitza zalantzan jarri nahi du, eta hori gutxi balitz, sarri, epaileak ere paper bera jokatzen du. Emakume batek eraso udaltzaingoan salatzen badu, elkarte bati laguntza eskatzen badiu, epaiketara joaten bada, egun guztia epaitegian pasatzen badu, erasotua izan dela frogatzeko beharrezko galdera guztiak erantzun baditu, nola liteke epaileak gisa horretara erantzutea? Ez dakit zein formakuntza jasoko zuen, baina tamalgarria da.

Formakuntza aipatu duzu. Zein dira epaileentzako gabeziak?

Bi gako nagusi daude: formakuntza eta hautaketa prozesua. Horrelako prozesuetan parte hartzen duten profesionalentzat ezinbestekoa izan beharko litzateke gaiarekiko kezka izatea, eta noski, beharrezko formakuntza jasotzea. Bestalde, uste dut fiskalek berebiziko garrantzia dutela halako kasuetan eta ez direla euren lana ondo egiten ari. Fiskaltzak zuzenbide estatua ordezkatzan du, eta beraz, biktimari. Baina EAEn behintzat ez dute behar bezala errepresentatzen. Bera da erasotua babesteko neurriak eskatu behar dituen urruntze aginduak, zigorrak...– eta biktimak ez du hori zertan jakin; biktimak gertatutakoa kontatu behar du, besterik ez. Horren adibide da Saholin monjearekin gertatu zena, bi emakume hiltzeagatik kondenatu zuten, baina bost edo sei emakume modu basatian erasotzeagatik ez zuen zigorrak jaso, eta hori fiskaltzaren errua izan zen. ■

“11 ERASO 12 ERANTZUN” MANIFESTAZIOA APIRILAREN 9AN

Gasteizen izango da manifestazio nazionala. Mugimendu feminista irailaz geroztik ari da prestatzen manifestazioaz gain egun osoko egitaraua. Mugimenduak baditu gutxienez lau arrazoi indarkeria matxistaren aurkako manifestazio nazionala prestatzeko, Zuriñe Rodriguez antolaketa taldekoak adierazi digunez.

Lehenik eta behin, 2015eko uda gogorra izan zen Euskal Herrian. Jai giroan, eta giro horretan ez zela ere, erasoak izan ziren.

Bigarrenik, mugimendu feministak indarkeriaren inguruko eztabaida soziala egiteko premia sentitzen du, indarkeria zer den hitz egiteko gu-neak eta garaiak aurkitzea. Jendartean ohikoa da pentsatzea emakumeen aurkako indarkeria hilketak, bortxaketak eta kolpeak direla. Indarkeriak molde asko ditu, eta horiek ezagutarazi nahi ditu mugimendu feministak.

Hirugarrenik, Rodriguezen ustez, mugimendu feminista kriminalizatzen da eraso bakoitzari erantzuten dion bakoitzean, “beti gaude jomugan”. Erasoei emandako erantzunez eztabaida sortzeko beharra sentitzen du mugimenduak, erantzuteko mila modu daudela azpimarratu nahi du, eta modu horiek gainera gaur egun erabili egiten direla. Denak dira zilegi, “eta erantzun bakoitzarekin patriarkatua ahultzen dugu”.

Bada laugarren arrazoi bat apirilaren 9an manifestazioa antolatzeko. Mugimendu feminista indartsu dago, “Gallardonon Abortuaren Legearena eta gero herri txiki, ertain eta handietan talde feministak lanean ari dira. Garai ona da, indartsu gaude eta indarkeriaren gaian aktore garrantzitsuak gara”.

Imanol Larrañaga,

Elgoibarko Izarra euskaltzaleon topaguneko kidea

“EUSKALGINTZAN, GIZARTE HOBE BATEN ALDE EGITEKO BOKAZIOAREKIN ERE BADIHARDUGU?”

Topaguneak urtarrilean antolatu zituen Topaldia jardunaldietan hitzaldia eskaini zuen Imanol Larrañagak. Elgoibarko Izarrako dinamizatzaileak 2017ko Topaldirako gaia proposatu zuen: Euskara elkarteei badagokie gizarteko bestelako gaietan bustitzea? Badagokie gainontzeko herri mugimenduekin lankidetzan jardutea? Guk galdera horiek egin dizkiogu berari.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

ARGAZKIA: BARREN ALDIZKARIA

Zuk esana da: “Euskaldunok batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa da. Horri kasu eginda, euskararekin lotura zuzena duten gaietan bakarrik arituko gara. Euskararekin lotutako gaietan busti gara, gainontzeko gaiak beste foro batzuetarako lagata”. Erabaki horrek Elgoibarko Izarran zein ondorio on eta txar izan ditu?

Erabaki horren alde on eta txarrak zerrendatzen eta azaltzen hasi aurretik, esan nahi dut erabakiak betetzeko hartzen direla. Izan ere, askotan, erabakiak hartzen dira, baina tentazioa izaten dugu erabakiak modu batera edo bestera interpretatzeko, zein datorren eskean edo proposamenarekin.

Ondorio onei dagokienez, erabaki horrek izateko eta jarduteko modu bat eman dio elkarteari. Elgoibarko Izarrak marka bakarra izan du herrian: euskararen marka. Horri esker, jendeak elkarte euskararekin (bakarrik) lotu du, eta ondorioz, horrek balio izan du kolore guztietako euskaltzaleak elkartera biltzeko.

Baina, kasu honetan ere, arrosa artean bada arantzarik, eta ondorio txarrak ere izan dira. Besteak beste, bazkideak borratu dira, hiruzpalau baino ez 25 urtean; jende bat ez da elkartera arriatu, haien ustez makalegiak garelako; elkarteko kide batzuek autonomia murriztu zaiela sentitu dute, beste gizarte-mugimendu batzuetan parte hartzeko...

Erabaki hori orain hartu duzue? Lehenago zein zen zuen filosofia gai horren inguruan?

Erabakia ez da oraingoa. Erabakia 1990ean hartu genuen, Elgoibarko Izarrak bigarren etapari ekin zionean [lehen etapa 1963-1990], eta oraindik ere indarrean dago.

Lehen etapako bazkide batekin egon naiz, eta berak aitortu didanez, garai hartan ere irizpide bera izan zuten. Eskari-proposamen dezente jasotzen omen zituzten (ezker abertzaletik, batez ere), baina Elgoibarko Izarrak ez zuen

parte hartzen, ez eta iritzirik eman, euskarari eta euskal kulturari lotuta ez zeuden gaietan.

Aurten, baina, Elgoibarko Izarraren *Oinarri filosofikoak* errebisatzera goaz, hiru urtetik behin errebisatzen ditugu, eta bazkide batek erabaki-irizpide hori berriz ere aztertzeke eskaria egin du. Beraz, gai horren gainean gogoeta egingo dugu aurten.

Zuk Topaldian egindako galderei buelta emanda: Euskara elkarteei ez dagokizue gizarteko bestelako gaietan bustitzea? Ez dagokizue gainontzeko herri mugimenduekin lankidetzan jardutea?

Euskara elkarteok galdera bat egin behar diogu gure buruari, nire ustez: euskaratik bakarrik dihardugu? Hau da, gaurko gizarte bera baina euskaraz da guk nahi duguna? Euskaraz bada, berdin zaigu inguratzen gaituen gizartea nolakoa den? Ala, euskalgintzan dihardugunean, gizarte eta mundu hobe baten alde egiteko bokazioarekin

ere badihardugu? Galdera horri zintzo erantzuten badiogu, zure galderari erantzuteko moduan izango gara.

Orain arte, euskarari eta euskal kulturari zuzenean lotutako gaietan bakarrik bustitzearen alde egon naiz; argi nuen erabaki horrek mesede egiten ziola Elgoibarko Izarrari. Baina orain zalantzak dauzkat.

Garbi daukat busti egin behar dugula; lokatzetan zikintzeko prest egon behar dugula, baina ez dakit hori zelan egin. Gai delikatua da, gure artean haserretzeko arrisku handia ikusten dut, eta hain zuzen ere, horregatik proposatu diot Topaguneari hurrengo Topaldian gai hori aztertzeko.

Batzen gaituena banatzen gaituena baino garrantzitsuagoa bada, bizirik irtingo gara eztabaidatik. Baina esaldi hori ondo geratzeko pose bat baino ez bada, dena kakazteko arrisku handia ikusten dut.

Beharbada, gure mugimenduak dituen oinarri filosofikoen sendotasuna neurtzeko ariketa interesgarria izan daiteke.

Galizian, udako ikastaroetan, sindikalistak, ekologistak eta sexu askapeneko militanteak hitz egiten dute galegoari buruzko jardunaldietan. Zer deritzozu?

Ondo. Herri hau ez dugu euskaldunduko euskararen (euskaldunon) auziari euskalgintza tradizionalak bakarrik heltzen dion bitartean. Kontseiluak, euskara elkarteek, ikastetxeek, euskaltegiek, euskarazko hedabideek eta gainontzekoek egingo dute bakoitzak bere lana, baina nire ustez, jai daukagu euskararen auzia gizarte osoaren erantzukizuna dela ulertu eta onartzen ez dugun bitartean. Euskararen kontua ezin da euskaltzaleena bakarrik izan. Denon erantzukizuna da. Gizarte osoari dagokion kontua da.

Nel Vidal Barral hizkuntza normaliztzaileak, Galiziaz ari dela, gizarte mugimenduen arteko zirrikituak baliatzea defendatzen du, mugimendu horietan hizkuntzaren gaian eragiteko. Eta hain urrutira joan gabe, zeuk Lorea Agirre-ren esanak aipatu zenituen Topaldian: "Eman eskua ahizpak ditugun beste ahalduentze bideei". Estrategia eraginkorra dela uste duzu?

Bai, eskua ematearen aldekoa naizela uste dut. Bihotzak eskua luzatzeko esa-



"Orain arte, euskarari eta euskal kulturari zuzenean lotutako gaietan bakarrik bustitzearen alde egon naiz; argi nuen erabaki horrek mesede egiten ziola Elgoibarko Izarrari. Baina orain zalantzak dauzkat"

"Bihotzak eskua luzatzeko esaten dit, baina burua galderak egiten hasten zait: zeintzuri eman behar diegu eskua? Guk aukeratuko dugu zeini eman, ala haiek aukeratuko gaituzte? Ahizpa guztiak tratatuko ditugu berdin? Noraino joango gara eskua emanda?"

ten dit, baina burua galderak egiten hasten zait: zeintzuri eman behar diegu eskua? Guk aukeratuko dugu zeini eman, ala haiek aukeratuko gaituzte? Ahizpa guztiak tratatuko ditugu berdin? Noraino joango gara eskua emanda? Galdera eta zalantza asko, gauza onerako. Ezertan hasi aurretik, nire ustez, gaiaren gaineko azterketa eta gogoeta sakona egin behar dugu.

Izan ere, baten batek galdetu dezake zer aldatu den orain arte hain argi genuena zalantzan jartzeko. Galdera horren erantzuna argi izan behar dugu, ez badugu noraezan ibili nahi.

Euskal Herrian oso ohikoa da saltsa batean baino gehiagotan pertsona berberak ibiltzea, eman dezagun, herri-bera talde ekologistan eta feministan ibiltzea edo herriko euskara elkarteetan eta sindikalgintzan.

Horrelakoak badaude, zorionez, baina horrek baditu bere alde on eta txarrak. Ona da, adibidez, euskara elkarteetako jendeak beste mugimenduetan ere parte hartzea, haietan ere eragin dezaketelako. Baina bere alde "txarra" ere bada esango nuke. Hainbeste saltsatan dabilen euskaltzalea "markatuta" ere egoten da, eta badakigu zenbat erreparoz izaten den gure herrian markatuta dagoen jendearekin.

Hala ere, nik beste aldea ere ikusten dut. Bakoitzak herrigintzako atal bat aukeratzen du, eta horretan (bakarrik) zentratzen da. Jende asko dago euskalgintzan bakarrik diharduena; edo feminismoaren aldeko taldeetan bakarrik parte hartzen duena; edo sindikalgintzan bakarrik bustitzen dena. Beharbada, herrigintza modu irekiagoan ere ulertu daiteke, baina horrek konpromiso mailak gora egitea eskatzen du, militantzia areagotzea, eta denbora librearen asko estimatzen dugu.

Hala ere, Topaguneak antolatutako azken Topaldian entzun nuen moduan, militantzia ez da sartzen ditugun orduen arabera neurtzen; munduaren aurrean hartzen dugun jarrera da militantzia. ■

Hegoaldeko trenbide saihesbidea

ZEMENTU GEHIAGO MEATZALDE ETA EZKERRALDERAKO

Azken hilabeteotan hautsak harrotzen ari da –ez lehenbizikoz– mende hasieratik datorren azpiegitura proiektu bat: hegoaldeko trenbide saihesbidea, Santurtziko portura iristen diren merkantziak trenez ateratzeko helburua duena. Momentuz zati bakarra dago eginda, Serantes mendiaren azpiko tunela. Eginda, baina itxita; 2010ean amaitu zenetik ez da trenik ibili bertan. Tunelari behingoz erabilpena emateko Espainiako Gobernuak Ortuella eta Bilbo arteko hamabi kilometroko trenbide berria proposatu du, baina proiektuari dozenaka alegazio aurkeztu dizkiete Ezkerralde eta Meatzaldeko herri elkarte eta erakundeek, eskualdeoi ekarriko lizkiekeen kalteak direla eta.



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: IRANTZU PASTOR

Euskal Herriko “Castelló-ko aireportua” esan izan zaio Seranteseko tunelari. Espainiako Sustapen Ministerioak 2001ean onartu zuen hura eraikitzeko proiektua, baina lanak ez ziren 2005era arte hasi. Amaitu, berriz, 2010ean. Iragarritako helburua zen Santurtziko Portutik trenez ateratzen diren merkantzien zati bat bertatik eramatea, Ezkerraldeko herri populatuak (Santurtzi, Portugalete, Sestao, Barakaldo) garraio horren zamaz libratzeko hein batean.

Batzuk libratzeko beste batzuen bizkar gainean ipini behar, ordea. Seranteseko tunelak jarraibidea izateko portuko merkantziak Ortuella eta Trapagaran herrietatik igaro behar ziren, Meatzaldea bailaran. Proiektuak erantzuna jaso zuen herriotan –haren aurkako Meatza plataforma sortu zen besteak beste–, eta azkenik adostu zen tunelak ez zuela funtzionatuko hegoaldeko trenbide saihesbide osoa egin arte.

2008an onartu zen saihesbide proiektua, hamazortzi kilometrokoa, Arrigorriagaraino iritsiko zena hirigunerik

zeharkatu gabe. Kostua, 600 milioi euro. Ordurako hasita zegoen krisi ekonomiko, eta Madril ez zen proiektuan murgildu. Seranteseko tunela amaitu egin zen, ia 50 milioi euro gastatuta, baina erabiltzeko dago oraindik.

2014an gaia berpiztu

Afera lozorroan egon zen 2014ra arte. Orduan, eskualdeko herritarrek prentsaren bidez ezagutu zuten Espainia eta Euskal Herriko zenbait ordezkari publiko tunela martxan jartzeko asmoa agertzen hasiak zirela. Hamarkada bat lehenagoko erresistentziak berpiztu eta Meatza plataforma berriz hasi zen lanean; 2015eko urtarrilean 2.000 lagun bildu ziren Ortuella eta Trapagaranen egindako manifestazioan.

Azkenik, azaro amaieran, hauteskunde orokorretarako kanpaina hasi baino astebete lehenago jakin zen Sustapen Ministerioaren asmo zehatza. Zehazki, azaroaren 28an argitaratu zuten hegoaldeko trenbide saihesbidearen lehen faserako ikerketa txostena, ale-



gazioak aurkezteko hilabete epea irekiz. 2008ko helburuak apaldu egin dira, baina ez dira makalak: txostenak hainbat ibilbide aztertzen baditu ere, Ministerioak lehenesten duenak hamabi kilometroko luzera eta 300 milioi euro inguruko kostua leukake.

Ibilbidearen zati handiena –bederatzi kilometro inguru– hiru tunelen azpitik igaroko litzateke, eta biadukto bi ere izango litzuke. Aukera guztietan garestiena eta ingurumenerako kaltegarriena dela onartzen du txostenak berak, baina “funtzionalitateagatik” lehenesten du. Hau da, Bilbo eta Santander arteko balizko AHT linearekin lotura egiteko egokia litzatekeelako.

Ingurumenari kalteak

Proiektuak alegazio ugari jaso du, bai herri mugimenduarenak bai erakundeak, inguruko udalenak batik bat. Azpimarratzekoa da, zentzu horretan, Amaia del Campo Barakaldoko alkate jeltzaleak proposatutako ibilbideaz esandakoa: “Ingurumenerako basakeria



*Serantes mendiko
tunelaren irteeretako
bat –gaur egun itxita–
Ortuellako aldean.*

da”. Udalerriko azken gune naturalen defentsan diharduen Barakaldo Naturala plataformak, hain zuzen, hainbat alegazio aurkeztu dizkio Espainiako Gobernuaren txostenari. Besteak beste, balio handiko parajeak suntsituko lirakeela azpimarratzen dute.

Bestalde, Barakaldo Naturalak bere alegazioetan gogorarazten du proiektuaren txostenak ez duela kontuan hartzen Argalarioko biltegia –haren azpian tuneletako bat eraikiko litzateke– beranduenez hamar urte barru hustu behar dela. Ehunka mila tona lindano daude gordeta Argalarion.

Proiektua bera ezbaian

Ingurumenarekin zerikusia duten alegazio zehatzetatik harago, Barakaldo Naturala eta Meatza elkarteek –bigarrenak 72 alegazio aurkeztu ditu orotara– proiektu osoa jartzen dute ezbaian. Portuko merkantzien garraioari irtenbidea emateko modua birpentsatu behar dela diote, inguruko herritarren iritzia benetan kontuan izanik. “Arazoa da”, diosku

Meatzako kide batek, “ikerketa txostenaren helburua nagusia Seranteseko tunela irekitzea dela. Gure bizi-kalitatearen aurkako eraso da, eta ez da lehena, tunela irekitzeari alternatibarik ba ote dagoen pentsatu gabe”.

Espainiako Gobernuak proposatu duen ibilbidearen aldekoak eta kontra-koak ez datoz bat funtsezko gauza batean. Lehenbiziko multzokoek –Eusko Legebiltzarrean ordezkaritza duten talde politiko gehienak barne– diote premiazkoa dela Santurtziko Portuko merkantzien garraioari bide berriak eskaintzea, handitu egin baita portura iristen diren salgaien kopurua: %10 inguru, 2012tik. Bestelako iritzia dute egitasmoaren aurka dauden herritar taldeek eta EH Bilduk, besteak beste. Koalizioak eta Eguzki talde ekologistak argudiatzen dute ikuspuntu zabalago batez begiratuta datuak oso bestelakoak direla: zehazki, %25eko jaitsiera 2007 eta 2013 bitartean.

Espainiako Sustapen Ministerioaren hurrengo urratsaren zain daude orain, batzuk bezala besteak. ■

ogiaren egia

Galparsoro OKINDEGIA

Ogi biologikoak
Harri errotan xehetutako irinarekin egindako ogiak
Orantza ogiak

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

urtxintzak blai
mundua koloretan

egin zaitez urtxintxakide
www.urtxintxaeskola.eus

f Urbinx Eskola @urbinxeskola

INAKIBEREZIARTUA

**ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA**

25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

Ester Quintana

“EPAIKETARA HELTZEA GARAIPENA DA GOMAZKO PILOTEN BIKTIMONTZAT”

2012ko maiatzaren 14a greba orokor eguna zen. Bartzelonako manifestazioa bukatuta Ester Quintana etxerako bidean zela, Esquadra Mossoek jaurtitako gomazko pilota batek aurpegian jo eta ezkerreko begia galdu zuen. Lehen aldia da Katalunian halako auzi bat epaitegietara iristen dena eta apirilaren 11n bi polizia epaituko dituzte. Urteotan egindako lanari esker, pilota hauek debekatzea lortu dute, eta epaiketarekin bere bizitzako atal honi puntua jarri nahi dio. Puntu eta etena izango den erabakitzeke du.



Asier Arrate

@AsierArrate

ARGAZKIA: ROBERT BONET / LA DIRECTA

Nola bizi izan dituzu begia galdu osteko lau urte hauek?

Oso gogorak izan dira. Begia galtzeak ondorio sakonak izan ditu nigan. Estres post-traumatikoa dut eta psikologoa-rengana joan beharra daukat. Arlo fisikoan erabateko desgaitasuna daukat eta ezin dut gauzatu nire aurreko lana. Horrez gain, nire auzia ezagutzera emateko egindako lana ere neketsua izan da. Azken horrek hala ere, saria izan du.

Gomazko pilotak erretiratzeko borroka- ren irudi bilakatu zara.

Ez nago ziur zergatik, baina uste dut badirela zenbait faktore horretarako. Emakumea naiz eta ez naiz erakunde, kolektibo edo talde politiko baten parte. Pertsona arrunt gisa ikusi naute, eta horregatik askok sentitu dute niri gertatutakoa eurei ere gertatu ahal zaiela.

Bideoek kontrakoa frogatu arren, Generalitateko Barne Sailak eta Mossoek behin eta berriz gezurtatu dute egun hartan gomazko pilotak erabili izana.

Inpotentzia sentitu dut. Azken lau urte-

tan zazpi bat bertsio ezberdin kaleratu dituzte gertatutakoa estaltzeko. Behin eta berriz eskaintzen nien batzartzeko aukera, egun hartan gomazko pilotak erabili zirela eta kargak izan zirela frogatzen zuen bideo eta argazkiak erakusteko, baina ezer ez. Euren bertsioa mantentzen zuten. Hiru kontseilari pasatu dira Barne Saitetik ordutik hona eta azkena bakarrik jarri da nirekin harremanetan. Jordi Janek auzia konpontzeko borondatea duela uste dut... Edo agian isilarazteko, ez naiz ziur. Izan ere, Barne Sailak onartu egin du ekintza polizial baten baitan zauritu nindutela, baina ez eurek inolako errurik izan zutenik. Hori frogatzeko epaiketara joan behar izan dugu.

Nola ulertzen duzu erakundearen partetik inolako babesik ez izatea?

Argi dago biolentzia polizialaren kasuak ezkututzen saiatzen direla. Nire zauria gomazko pilota batek eragin zuela informean idazteko oso uzkur zeuden ospitaleko medikuak adibidez. Barne Sailak zein mossoek oraindik ez dute onartu greba egun hartan gertatutakoa. Elkar

babesten dute. Ulertzen dut lankideen arteko elkartasuna, baina gaizki dagoen zerbait estaltzea onartezina da.

Gomazko piloten ondorioz azken urteotan hainbat biktima izan dira, nola da posible ez egotea aitorten ofizialik erakundearen aldetik?

Biktima gisa aitortuz gero kalte-ordaina eman behar ligukete eta poliziak auziperatu behar lituzkete. Horrek aurrekaria ezarriko luke ostean etor daitezkeen auzi guztientzat, eta argi dago erakundeak ez direla horren aldekoak. Nire auzia lehena da Katalunian epaitegira iritsi dena, nahiz eta azken hamar urteotan hamabi pertsonak galdu duten begia. Zerbaitek ez du funtzionatzen erakundearen estamentuetan. Ez dakigu non dagoen akatsa, baina hor dago.

Erakundeek polizien jarduera babesten dute? Zergatik?

Erakundeek protesta kriminalizatu nahi dute eta Mozal Legea da azken adibidea. Herria zapaltzen dute ez dezan protesta egin eta gauzek lasai segi dezaten. Agin-



tariak berdin jarraituko dute inork ez badu ezer esaten, horregatik protesta egitea da gure iritzia ezagutarazteko dugun bide bakarra.

Mozal Legeak zaildu egingo ditu esku-bide urraketak frogatzeko bideo eta argazkiak.

Zailagoa izango da, bai. Materiala bada, erabili ahalko da epaiketa batean, baina nor ausartuko da argazkiak atara edo bideoa grabatzera auziperatua izateko arriskuan badago? Nire auzian esaterako, mossoak gomazko pilotak jaurtitzen agertzen diren bideoak ez ziratekeen existituko.

Generalitateak 260.000 euroko kalte-ordaina eman dizu eta "poliziaren jardueraren baten testuinguruan" zauritu zinela onartu du. Prozesua oraindik ez da bukatu ordea. Apirilaren 11n hasiko da mossoen aurkako epaiketa. Zer da lortu nahi duzuna?

Justizia egitea dut helburu. Epaia edozein dela ere uste dut epaiketara heltzea garaipena izan dela poliziak auzitara eramatea lortu ez duten gainontzeko

gomazko piloten biktimek. Epaiarekin ikusiko dugu zer nolakoa den justizia. Absolbitzen badituzte sistema gaizki dagoelako izango da. Pozik nago hala ere, justizia sozialaren alde egindako lanarekin. Jendeak badaki zer gertatu zitzaidan, eta polizia izan zela erruduna.

Gomazko piloten biktimek trabak izan dituzte arduradunak auzitara eramateko, batez ere goi kargudunak. Zuek ere arazo bera izan duzue?

Ez dakit beste auzietan zer gertatu den, baina guk estamentu polizial eta politiko guztia nahi genuen deitu deklaratzera. Felip Puig kontseilaritik hasita tiro egin zuen agenteraino. Gomazko piloten erabilera nork baimendu zuen jakin nahi genuen. Instrukzioko epaileak aurkeztu genuen zerranda ikusi zuen unean, ordea, argi esan zigun zerrendan agertzen zen pertsona jakin batetik gora zegoen inor ez zela deklaratzera joango. Uste dut instrukzio epaileak bere eskutan zegoen guztia egin zuela, baina Barne Saila eta mossoak ez zeuden laguntzeko prest. Ez zituzten froga gehienak

aurkeztu nahi izan, aurkeztu zituzten gutxi horiek ez zuten balio eta beti epailearen aginduz aurkezten zituzten, inoiz ez beren borondatez.

Gomazko pilotak beste munizio "ez hilkor" batzuegatik aldatu dituzte.

Materialaren kasuan gomazko pilotak debekatu dituzte, baina aldi berean, ultrasoinuen kanoiak, *Foam* jaurtitzailak edo *Taser* pistolak bezalako material berria eskuratu dute. Bitartekoak badituzte, ez bada ezbehar gehiago izan egoera lasaitzeko agindua izan dutelako da. Izan ere, nire auziak min handia egin die Generalitateari eta mossoei. Arazoari aurre egiteko poliziaren protokoloak berrikusi eta agenteak hezi behar dira. Prozedurak ere aldatu behar dira. Agintean dauden arazoak biolentzia bidez konpontzen direla uste badute, kalean dauden agenteek goikoek diotena egingo dute. Horrelakoa da sistema militarizatua hau. Berdin dio materiala aldatzeak edo entrenamendu gehiago egiteak. Galdetu beharrekoa da ea biolentzia den manifestazioak sakabanatzeko bidea. Bizia edozein gauza material baino baliotsuagoa da. Ez naiz edukiontzia erretzearen aldekoa, baina horrek ez du esan nahi pertsona horri tiro egin behar zaionik. Ezarritako polizia jardunbidea da: manifestariei oldartu manifestazioa sakabanatzeko eta gero sortutako liskarrrak baliatu protesta kriminalizatzeko.

Zuri gertatutakoaren ostean, ingurukoengandik zer jaso duzu, manifestazioetara joateari utzi al dio jendeak?

Asko ikaratu egin ziren. Beldurra dute manifestazioetara joateko. Gurasoek ume txikiak badituzte etxean uzten dituzte, asko ez dira ausartzen bakarrik joatera edo manifestazioa bukatu aurretik etxera bueltatzen dira. Hori da errepresioaren emaitza. Biolentziaren bidez lortu dutena.

Zuk ordea, argi duzu kalera aterako zarela behar den guztietan.

Manifestazioetara joaten jarraituko dut, nire iritzia publikoki adierazteko dudana aukera eta eskubidea delako. Begia galdu nuenetik manifestazioetara joan naiz. Ez da kargarik izan, baina polizia ikusteak beldurtu egiten nau. Seguratsun eza sentiarazten dit. Hala ere, ez dut poliziaren irudi hori izan nahi, ez dut uste denak berdinak direnik. ■

“ERREFUXIATUEN KANPAMENTUETAN, GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDE HANDIAK HEDABIDEAK DATOZENEAN ATERATZEN DIRA”

Migratzaile eta errefuxiatuek pilatuta jarraitzen dute Idomenin (Grezia eta Mazedoniaren arteko pasabidean), eta Lesbos uharteko kanpamentuak atxilotze-zentro bilakatu dira. Europar Batasunak itxita ditu ateak, eta 50.000 bat lagun ez atzera ez aurrera dabil Grezian. Egoeraren lekuko zuzenak izan dira Dabid Sanchez argazkilaria iruindarra eta Laura Vera kazetari madrildarra, Refugee Care taldeko kideak.



Koldo Azkune Etxabbarri

ARGAZKIAK: DABID SANCHEZ

Lesbosera iristen diren ontzien harrera nola dago antolatuta?

Laura Vera: Proactivako sorosle katalanak etorri baino lehen, ontziak noragabean iristen ziren, sarbide zaileko lekuetara, haitzen arteko gune arriskuetsuetara. Sorosleak daudenetik, ontziak kostaldera atoian eramaten dituzte.

Dabid Sanchez: Katalan hauen lana hil ala bizikoa da, etorkinen heriotza kopurua asko murriztu da. Urritik daude bertan, ontzien etorrera masiboa hasi zenetik. Proactivako bi kide etorri ziren lehenik, eta 15 egun eman zituzten bertan, harik eta dirua agortu zitzaizen arte. Bada, Lesbosko herritarrek eurek dirua bildu zuten sorosleak han gelditu ahal izateko.

Deigarria da Europako afera garrantzitsuenetako batean, errefuxiatuen etorrian erakunde ofizialik ez egotea.

D. Sanchez: Ez da erakunde ofizialik ikusten, ez Lesbosen ez Idomenin. Lan egiten ikusi ditugun bakarrak Mugarik Gabeko Medikuak dira, eta batik bat Grezia eta atzerriko boluntarioak. Acnur-eko logotipoa zenbait kanpadendatan irakurri dugu, baina ez da haien langileen arrastorik.

L. Vera: Gobernuz Kanpoko Erakunde handiak hedabideak datozenean ateratzen dira, adierazpenak egitera.

Eta Idomenin zer ikusi duzue?

D. Sanchez: Idomeni tren geltoki bat da, laborantza sailez inguratua. Migratzaileek egin dezaketen protesta bakarra trenbidea moztea da, egunero handik zerealak eramaten dituen tren bat pasatzen baita. Geltokia kanpadendez jositako itsaso handi bat da.

L. Vera: Lesbosetik Atenasera eramaten dituzte errefuxiatuak, ferryan. Eta hiriburutik gora egiteko modua bilatzen dute ondoren. Mazedoniara jo dute orain arte, Balkanetako bidean barna Suedia edo Alemaniara joan nahi dute-lako. Ez dute Grezian geratu nahi, hango egoera ere ez baita batere samurra.

Migratzaileei ematen zaien tratuan alde-rik badago?

D. Sanchez: Idomenira iritsi ginen lehenengo egunean, siriarrak baino ezin zuten pasa, eta afganiarrek edo irakiarrek ez. Bigarren egunean ere siriarrak pasatzen ziren, baina Alepo bezalako zonaldekoak bakarrik. Homs-ekoek ez zuten pasatzeko eskubiderik, une horretan gatazkarik ez zegoela argudiatuta. Egune- tik egunera muga gurutzatzen zutenen kopurua murrizten joan ziren.

L. Vera: Baina ez dute sartzeko itxaropena galdu. 10.000 pertsona baino gehiago dago Idomenin, eta sinetsita daude egoera horretan ezin dituztela

luzaz mantendu. Horregatik ez dira beren lekutik mugitzen. Ilara luzeak egiten dituzte eta txanda ez galtzeko bertan jaten eta lo egiten dute. Hamar egun baino gehiago eman ditzakete ilaratik mugitu gabe.

Nolako da jatorri ezberdineko errefuxiatuen elkarbizitza?

D. Sanchez: Idomenin herrialdeka antolatuta daude. Beste leku batzuetan, Atenasko Pireon kasu, siriarrak eta afganiar- rren artean izan da liskarrik. Aljeriarrak eta marokoarrak urrutixeago daude, ez baitute sartzeko inolako aukerarik.

L. Vera: Idomenin ez dugu ia-ia borro- karik ikusi. Baina han lan egiten duten erakunde bakanek ere bereizketak egi- ten dituzte, eta erregistratuta daudenei baino ez diete ematen laguntza. Afganis- tan, Somalia edo Aljeriako herritar bat janari eske joaten bazen, Greziako Gu- rutze Gorriak janari-poltsa ukatu egiten zion erregistraturik ez zegoelako.

D. Sanchez: Migratzaileek ez dituzte bereizketaren arrazoiak ulertzen. Ira- kiarrek eta afganiarrek esaten ziguten gerran urteak daramatzatela. Idomenin palestinarrak ere badaude, Gazako le- rrokoak. Edo Turkiako kurduak... Eta orain, Turkian zapal dutako kurduak ere, atxilotu eta arerioen besoetan utzi nahi dituzte!



"Ez dago Gobernuko ordezkariarik. Herritarren antolakuntzari esker hartu ahal izan dituzte Grezian errefuxiatuak", kontatu digute Sanchezek eta Verak.

Mafiek probetxu atzeratzen diote migrazaileen beharrari?

D. Sanchez: Turkiatik Lesbosera igarotzeko 800-2.000 euro ordainarazten diete, 15-20 bidaiari eramanen dituen ontzi batean joateko, eta azkenean ontzian 70 edo 80 pertsona sartzen dituzte. Errefuxiatu batzuek Turkian Alemaniara eramanen dituen bidaia osorik kontratatzen dute, 12.000 euroren truke. Baina negozioa ez dute horiek bakarrik egiten, taxilariak ere mozkin ederrak izaten dituzte. Guk arazoak izan

ditugu bidean errefuxiatuaren bat hartu eta autoz laguntzeagatik, salaketa jarriko zutela esaten ziguten taxilariak, legez kanpoko trafikoa egotzita.

Lesbosen ikusitako errefuxiatuak zein aldaterekin iristen dira Idomenira?

D. Sanchez: Lesbosen edo Idomenin ikusi, aurpegiak oso bestelakoak dira. Lesbosera pozarren iristen ziren, etaparik gogorrenetako bat pasatuta. Idomenin begitartea ilunagoa ageri zitzaien.

L. Vera: Lekuarekin ere badu zerikusi-

rik. Idomenin okerrena euria da: bertzeko darabilten egurra bustitzen zaie, ura kanpadendetan sartu, arropak blaitu... Egoera horretan bizitzea oso gogorra da animikoki. Gainera, anputatutako jende mordo dago, edo aulki gurpildu-nean ibiltzen dena, eta lokatzetan mugitzea ia ezinezkoa zaie.

Nola erantzuten ari da Greziako Gobernua?

L. Vera: Egoerak gainezka egin die. Gobernua baino gehiago, gizarte zibila da erantzuten ari dena. Eurak dira oinarritzko laguntzak ematen dituztenak.

D. Sanchez: Atenasen errefuxiatu andana dago, eta Pireon boluntarioak ikusten dira bakarrik, ez dago Gobernuko ordezkariarik. Herritarren antolakuntzari esker hartu ahal izan dituzte Grezian errefuxiatuak. ■

Azadia izotzetan



Jakoba Errekondo

jakoba@bizibartztea.eus

Kataluniako Puigcerdá herria mendian da, Pirinioetan, 1.200 metroko altueran; negu gogorren bizitokia. Hemen klima zakarragoa bizi genuen garaiak gogora ekartzen ditu hangoak.

Ehunka urtean aza (*Brassica oleracea*) jan dute han, gure moduan. Toki hotzetako hotz gorrietan ere ederki irauten du baratzean. Endemas, hotzak hobetu egiten du. Ahosabairik duen edonork badaki: izotzak pasatako aza gozoagoa da; alde ederrekoa! Ahosabaia ahozeru bihurtzen du.

Azak bezala, ez zuhaitz ez zuhaixka ez den landare ugari loratzekotan, hotzaldi eder bat igaro behar du. Hotz horrek tontortzea, garatzea, burutzea, hozitzea eragingo dio. Hotzaren akuilukada hori gabe, jai du azaren loreak.

Uztarri berean, hotzarenean, lotu ote daiteke azaren pare hau: gozatu egiten du eta loratzera kilikatu. Hotzaren he-deak harrapatu duen azak badaki: lo-



Ahosabairik duen edonork badaki: izotzak pasatako aza gozoagoa da.

JAKOBA ERREKONDO

ratzera jarri behar da, dituenak eta ez dituenak eman beharko ditu bere kasta betiketuko duten haziak sortzeko. Bu-kaera hastera doa. Bereak egin eta bere buruaz beste aza batzuk izango direnak egingo du. Bizi osoan bildu dituen gordailuak horretara bideratuko ditu: zuztar gizenean eta buru handi kobatuan pilatutako jakiak dantzan jarriko ditu. Jaki horiek kimua piztuko dute: lorearen gara abiatuko da hosto artean gora; burua badu, era ikusgarrian lehertu eta zeharkatuko du.

Aza-gara elikatuko duen jaki-salda hori erreserbetako almidoitik dator. Almidoi horixe da izotzaldiak azukre bihurtzen duena. Azukreak dakar lorea. Azukreak ahozerutzen du ahosabaia. Azukrearen uztarriak bukatzen du azarena.

Ederki dakite Puigcerdán. Otsail amaiera aldera, urtero ospatzen dute azaren gorazarre jaia: *Festa del Trinxat*, aza jana. Bereziki hazten duten bertako aza aldaera bat, izotzak ondu ondoren, jaia. Bejondeiela! ■

IRAKURLEAK GALDEZKA

Kaixo Jakoba, Larraulgo Museoko taldetik idazten dizut. Aurten lihoaren inguruan lan asmo bat daukagu: emakumeen ofizio zaharra berreskuratu eta lihoaren lanketa guztia egin. Martxoan ereitea egokitzen zitzagun eta ilgoran egiteko asmoa genuen baina gure eskuartean tokatutako liburu batean ilbeheran ereiteko azaltzen da. Zuntzak ateratzea komeni da haria sortzeko? Eta horretarako ze ilargi alditan ereitea komeni zaigu? Mila esker.

Pili Otaegi (Larraul)



Ehun-lihoa (*Linum usitatissimum vulgare*).

H.ZELL-CC BY SA

Kaixo Pili. Lihoaren lanketa diozunean ehun-lihoaz ariko zara noski, hau da, *Linum usitatissimum vulgare*. Olio-tarako eta abar, beste aldaera batzuk erabiltzen dira.

Ehungintzarako komeni zaizunaren arabera erabakiko nuke nik. Haritarako zuntzak luze eta meheak nahi izatera ilgoran erein, baina ahulak izan daitezke, lantzeko hauskorrak, alegia; aldir, zuntzak mozteagoak baina sendoak nahi izanez gero, ilbeheran erein. Liho-saila edo

lihadia nirea balitz, ilbeheran egingo nuke. Hala ere jokorako aukera paregabea ematen du lihoak. Zuen esku.



ULIAKO LORE BARATZEAK

Parke bat, herritarren proiektuak aurrera ateratzeko



Garazi Zabaleta
@tirikitran

“Ulia auzoa oso sakabanatua da, ez dugu elkarbizitzarako tokirik. Hori eskaintzen digu parke honek”. Leire Rodrigez Uliako Lore Baratzeke kideak argi du auzoari parkeak ematen dion aberastasuna. Urteak itxita zeramatzen parkeko atek zabaltzeko eskaerarekin hasi zen lehenik auzo-elkartea, eta 2013an Uliako Lore Baratzeen proiektua gehitu zioten eskaerari. Auzo-elkartearen lanari esker 2014ko urte amaieran udalak partzelaren kudeaketa lehiaketa publikora atera zuen eta Uliako Lore Baratzeak proiektua izan zen aukeratua. Parkea kudeatzeko batzordea sortu zuten orduan: ideia lursaila herritar guztientzat irekita egotea da ahalik eta denbora gehien, lore-baratze guneak antolatzeke aukerak emanez. Oraingoz parkeko zenbait zati dituzte martxan.

Proiektu anitza, auzotar guztiei irekia
Egitasmoaren aniztasuna azpimarratu du Rodrigezek: “Proiektuak ez du inongo loturarik alderdi politiko edo ideologia zehatzekin. Hemen bost minutu baino gehiago egoten denak segituan ulertzen du hiriarentzat altxor bat dela parkea”. Herritarren proiektuak eta ilusioak aurrera ateratzeko

espazioa da, “benetako bizi publikoa” egiteko tokia. Esanguratsua da, adibidez, urtarrilean Eusko Jaurlaritzak Elkarlan saria eman izana proiektuari ingurumen eta gizarte kohesioan egin-dako lanagatik.

Parkea edo urbanizazioa, biak ez

Azken hilabeteetan, presa handiz jarri du martxan Donostiako Udalak parkean 70 etxebizitza egiteko hirigintza egitasmoa. Udalak etxebizitzaren plana parkeko jarduerarekin bateragarria dela dioen arren, parkearen babesleek argi dute hori ezinezkoa dela: “Eraikitzen has-tean hoditeria, argiteria edota errepidea egin beharko dituzte. Beraiek parke moderno bat nahi dute, orain daukaguna hori baino askoz gehiago da”. Otsailaren 25eko Udal Plenoan onartu zuten etxebizitzaren plana EAJren eta PSEren botoekin. EH Bilduk eta Irabazik, berriz, Ategorrieta-Ulia eta Intxaurren Zaharra auzoetan galdeketa bultzatuko dutela adierazi zuten. Uliako Lore Baratzeke kideak ere plenoan izan ziren, eta parkea babesteko lanean jarraituko dutela garbi utzi zuten: “Espekulazioaren aurrean, bestelako hiri eredu behar dugulako”. ■

BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea
@bizibaratzea



Eskaerak:

943 371 545 · www.argia.eus/denda

Salneurria: 23 €
Harpidetzat: 19,50 €

AURKEZPEN HITZALDIAK

Apirilak 8: Ezkio-Itsaso

Santa Luzia-Anduaga Kultur Etxean,
18:30ean.

Apirilak 9: Iruñea

Autobus geltoki zaharrea, Ekonomia Solidarioaren 4. Azokan. 12:00etan aurkezpen solasaldia. Egun guztian zehar, Landare-Karrikiri-ARGIA gunean landareen kontsultategia.

Apirilak 10: Zubietta (Malerreka)

Gazte Asanbladak antolatuta. Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 13: Barakaldo

San Bizenteko kultur etxean, 19:00etan.

Apirilak 14: Murgia

Lekua eta ordua zehazteke.

Apirilak 15: Usurbil

Gaztetxean, afari beganoaren bueltan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus

📞 943 371 545

ULYSSES S. GRANTEN ODISEA




Nagore Irazustabarrena
Uranga

@irazuastabarrena

Hego Karolina (AEB), 1861eko apirilaren 11. Konfederatuak Sumter gotorlekuari eraso zioten eta, hala, AEBetako Sezeshio Gerra hasi zen. Albistea Illinoisko Galena herrira iritsi zenean, bertako agintariek herrian soldadu konpainia bat osatzea erabaki zuten. Ulysses S. Grant kapitain erretiratua hantxe zegoen eta errekrutatze batzordeko presidente izendatu zuten. Handik hiru urtera herrialdeko armadaren jeneral burua izango zen eta 1869an AEBetako hemezortzigarren presidente izendatuko zuten.

Hiram Ulysses Grant 1822ko apirilaren 27an jaio zen Point Pleasanten (Ohio). West Pointeko akademia militarrean trebatu zen eta Mexikoren aurkako gerran jardun zuen. Gatazka amaituta, 1854an, kapitaina erretiratu egin zen.

Bizimodu zibilera ez zen batere ondo egokitu. Missouriiko etxalde batean nekazaritza negozio bat jartzen saiatu zen lehenik; alferrik. West Pointetik igarotakoek ia bermatuta zeukaten ingeniari postu bat lortzen ahalegindu zen hurrena, baina horretarako ere ez omen zuen balio. Esperientzia militarrek lagunduko ziolakoan, zor kobratzaile lanetan hasi zen, eta horretan ere ez zuen luze iraun. Azkenik, aitak Illinoisen zuen larru-enpresaren ardura hartzea erabaki zuen. Negozio hura ere porrotera eraman zuen.



RAAB COLLECTION

AEBetako presidente izan baino lehen, Ulysses S. Grant (1822-1885) alkoholarekin arazoak zituen negozio gizon tamalgarria izan zen.

1861ean Grantek 39 urte zituen, mantendu ezin zituen lau seme-alaba eta, zurrumurruren arabera, porrotek areagotutako alkohol zaletasun larria. Gerra zibilak hondoa jotako militar ohia berpiztu zuen.

Historialari batzuek haren estrategia militarren eraginkortasuna goraiatzen dute. Beste batzuek diote Granten kanpainen arrakasta erabili ohi zuen indarkeria neurrigabea zetzala.

Gerra amaitutakoan bakea kudeatzea egokitu zitzaion presidente errepublikanoari. Granten curriculum zibil pe-

nagarria ez baitzen nahikoa izan kargu gorenerako bidea oztopatzeko. Eta herrialdearen negozioak bereak bezain gaizki eraman zituen. Bi legegintzaldien balantze ekonomikoa oso kaxkarra izan zen eta, gainera, bere gobernuen organo exekutiboek ustelkeria kargu larriekin egin behar izan zieten aurre.

Haren alde esan beharra dago egungo hautagairen batek ez bezala eskubide zibilen aldeko jarrera izan zuela, bereziki bozkatzeko eskubidearen eta indigenen eskubideen aldekoa. ■



MGM

Neronen buffet birakaria

Egun batez, Erromako enperadore Neronek (K.o. 37-68) oturuntza oparoak eskaintzeko gela birakari bat nahi zuela erabaki zuen. Enkargua Celer eta Severus arkitektoei egin zien eta haiek hamasei metroko diametroa zuen jangela diseinatu eta eraiki zuten Domus Aurean bertan. Erdian lau metroko diametroa zeukan zutabea ipini zuten, sistema

hidrauliko baten bidez zebiltzan lau mekanismo esferiko zituena.

Coenatio rotunda hori enperadorearen nabarmenkeriaren adibideetako bat besterik ez da. Baina gerora jabetxe birakariak bideragarri izango ziren oinarrizko egokitzapen soil bat eginda: janaria birarazita, jabetxe osoa jiratu ordez. ■



2015eko Argia Egunean, Elortza Oñatin barna ibilbide historikoa gidatzen.

JERARDO ELORTZA EGAÑA

Jakintzak ez omen du lekurik okupatzen



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Jerardo Elortzak ez du ba gauza bera pentsatzen. *Zeruko Argiatik* ARGIA izatera pasa zenetik gaur arterako aldizkari guztiak ditu gordeta. Eta non sartzen dituen horiek denak? Etxeko zirrikitu guztiak bete zituenean garajejan egin zien lekua, eta hura topera zeukala alabaren baserrian prestatu zuten txokoa astekariz betetako kaxak gordetzen joateko. Ez da, baina, jasota daukan pape-reko komunikabide bakarra: garai bateko *Punto y Horak* edo *Egin* zaharrak ere badauzkala aitortu digu. Eta hala dio berak barrez: “Kontrakorik esaten bada ere, jakintzak lekua okupatzen du, bai”. Motibo berezirik ez omen du, dena dela, egunkari eta aldizkari hauek guztiak gordetzeko. Motiborik ez dakit, baina edonork nahi lukeen artxiboa dauka.

Filologia alemaniarrean lizentziatua da Jerardo Elortza oñatiarra, eta urteak daramatza euskararen eta euskal kulturaren bueltan. ARGIAko harpideduna da *Zeruko Argiaren* azken fasetik, eta astekararen ibilbidea gutxi ezagutu du. Euskarako eta historiako klaseak

ematen zituen 1980ko hamarkadan, ARGIAk erabiltzen zituela hizkuntza bezala euskal mundua lantzeko.

Etxean daukan altxorarekin, ordea, azken berrogei urteetako ibilbidea idatzietan soilik ez, irudietan ere ikus daiteke. Portadak. Zer utzi digute urte hauetan zehar astekararen azalek eta irudiek? ARGIAren lehen portada dator kio burura Elortzari, Lemoizko zentral nuklearrarena; baita aurretik *Zeruko Argian* 1976an argitaratu ziren Anparo Arangoari torturatua izan ondoren ospitalean zegoela ateratako argazki historiko haiek ere. Baina argazki, irudi eta portada horiek ez digute soilik gure herriko historiaren norabidea bakarrik erakusten, baita hedabideak historia horretan egin duen ibilbidea ere; zein gairi egin zaion toki bat aldizkarian, zeri eman zaion portada...

Astekariko harpideduna baino gehiago da Jerardo Elortza, artxibistaz gain. ARGIA proiektuan parte-hartze aktiboa du. Ala ez zara oroitzen nork egin zuen 2015eko Oñatiko Argia Eguneko bisita gidatu historikoa? ■

“Espetxean egindako urte luzeetan erdarazko basamortu hutsean bizi nintzen eta ARGIA Euskal Herriarekin lotzen ninduen leiho argitsua izan zen, euskaraz”

Trantsizioak erakusketan jasotako aipua



ARGIA Gazte Danbada

Trantsizioak erakusketa ikusgai izan zen Laudion martxoaren 25etik 28ra. Horrez gain, ARGIAko kideek euskarari buruzko mahai-inguruan eta komunikazioari buruzko hitzaldian hartu zuten parte.

Sarean arrantzatua



AGENDA

Gerra Europaren bihotzean dokumentalaren estreinaldia

- Ibai Trebiñok egin eta ARGIAk lagundutako dokumentala estreinatuko du egileak berak: Igorren, apirilaren 8an, 20:00etan Zinema aretoan.

Ramon Saizarbitoria:

“GURE GERRA KONPLEXUAGOA IZAN DA ETA KONTAKIZUNA EGIATIAGOA”

Donostiaren eta Otzetaren artean, gure garaiaren eta 36ko Gerraren artean, idazle heldu endekatu baten eta ikasle nerabe buru argi baten artean, hor dago *Lili eta biok* (Erein, 2015) Ramon Saizarbitoriak argitaratu duen azken nobela. 2012an *Martuten*ekin bere ibilbidean mugarririk jarri ondoren libreago idatzi duela azaldu du, Bruselako eztanda hotsekin hasi den egunean egindako elkarrizketan.



Gorka Bereziartua Mitxelena

@boligorria

ARGAZKIAK: DANI BLANCO

Egoera dekadente samarrean ikusten dugu Faustino Iturbe protagonista nobelaren hasieran. Lili gaztea ezagutu ondoren hasiko da suspertzen. Nola deskribatuko zenuke bien arteko harremana?

Ez dakit hori harrapatu den eta asko interesatzen zaidan gaia da: umore klabean idatzita dago eta konturatu naiz jende batentzat frustagarria dela, jeneralean bromak ez zaizkiola gustatzen eta gutxiago erdi-serio direnean, ez dagoenean argi. Esango nuke euskaldunok bereziki ditugula arazoak hor. Tipoa multi-gaixo bat da, ez dakigu zer gaixotasun den ere, hainbeste ditu... Eta egia da badagoela hor fantasia bat-edo, emakumeak, eta kasu honetan neskak, salbatu egiten gaituela.

Martutenen ere agertzen zen ideia hori.

Bai, han ere Lynnek medikua bultzatzen du bere errua aitortzera eta gertakizunei aurre egitera, kasu honetan Lilik Faustinoekin egiten duen bezala. Baina Faustinoen eta Liliren harremanean badago nahi pedagogiko bat ere:

nahi nuen gazteentzat egin, gogo hori eduki ez banu pasarte batzuk ez bainituen idatziko.

Zein?

Ba, behin baino gehiagotan errepikatzea familiaren historiatik libratu behar gara, adibidez. Historian gure arbasoak aukeratu ditzakegula, “nire aita karlista izan zen” edo “nire ama abertzalea da” horren zama gabe. Azken finean, irakatsi zaigu Santa Kruz apaizetik gatzela eta, joder, egia esan, uste dut badauzkagula pertsonaia interesgarriagoak. Niri hemengo liberal haiek presentableagoak iruditzen zaizkit, zer nahi duzu esatea.

Zergatik da problematikoa hori esatea?

Gurean horiek heterodoxoak zirelako, hain zuzen ere. Beti egon gara apaizen, era askotako apaizen menpe.

Itzul gaitzen harremanera: zer dago Faustinoen eta Liliren artean?

Lolitaren erabat bestaldeko zerbait

adierazi nahi nuen: gizon baten eta neska baten arteko harreman, nolabait, garbia.

Baina beste mota bateko harremanaren aukera iradokitzen da, ezta? Ez al dago jolas hori?

Bai, gizonaren hausnarketak, emakume bezala ikusten duela, orain politago, gero umeago... Tentsio hori ere nahi izan dut, irakurleari adieraztea beste hori ere izan ote zitekeen.

Baina gehien azaltzen dudana da gizonak ze gaizki daraman gizon izatea. Iru-ditzen zait ez dugula hobera egiten, garai hauetan matxismo forma berriak ari direla sortzen, zenbait gauzetan atzera ari garela egiten. Kirolean gero eta matxoagoak, zikinagoak... Hau beste gai bat da, baina adibidez Reala: soziologikoki oso interesgarria da nola Realaren baloreak, dotore, noble, zikin ez izatea eta abar, gaur egun kontrabaloreak diren. Egunkarietan kaña ematen zaie horregatik, ia-ia “*nenaza*” deitzeraino. Eta aldarrikatzen dira Atletico de Madrid be-



zalakoen baloreak. Alderantziz beharko luke izan, erakutsi zera basati horretan gure gazteek oraindik beste balore batzuk dituztela.

Juan Aramendia, nobelako falangista “zintzoa”, bada bestelako gizon eredu bat.

Hemen ez da oraindik esplotatzen hasi, baina literarioki interesgarriak egiten zaizkit horrelako falangistak. Donostian Gu elkartea zuten Jesus Olasagasti pintoreak, Jose Manuel Aizpurua arkitektoak-eta. Oso aurrerakoiak ziren artearen aldetik. Hona ekarri zituzten Picasso eta beste hainbat, adibidez. Euskaltzaleak ez ziren, noski, baina jende interesgarria da.

“Historian gure arbasoak aukeratu ditzakegu, ‘nire aita karlista izan zen’ edo ‘nire ama abertzalea da’ horren zama gabe”

Rosarito eta Lore pertsonaien bidez emakumeek gerran eta ohiko bizimoduan jasaten duten indarkeria ere agertzen zaigu.

Orain dela urte batzuk figura bat nuen: banderak emakumeek brodatzen dituztela, apaizek bedeinkatu eta gizonezkoek odoldu. Eta konturatu naiz ez dela horrela, gerrako lehenbiziko biktimak emakumeak direla, nahiz eta ez zaigun historia hori kontatu ere egiten. Pentsa, Donostian oraintsu hasi gara irakurtzen eta entzuten nola bortxatu zituzten hiriko hainbeste emakume.

Emakumeek egunero jasaten duten bortxakeria horren errudun ere sentitzen naiz. Gizon bezala, ulertzen dut emakumeak beldurtzea, izutzea. Asko azaltzen da hori nobelan, igogailuaren eszenan adibidez: badakizu ez duzula nerabe bat zurekin igogailua hartzera gonbidatu behar, zeren ataka larri batean jarri dezakezu. Gauza horiek ze tristeak diren gizonontzat ere, ezta?



36ko Gerrak zer dauka hainbeste literatur lanetan agertzeko? Gauzak ez dira behar bezala kontatu oraindik?

Ez, gauzei ez zaie behar denean behar bezala aurre egiten. Nobela guztietan nire pertsonaiek arazo hori dute, *Martutenen* Abaituak eta hemen Faustino Iturbek. Gerrarekin ere hori gertatu da: ez da esplikatu, bertsio desberdinak daude oraindik; eta kontuz gainera, zeren neurri batean, irabazleak izan ziren "galtzaile" diskurtso aldetik lehenbiziko urteen ondoren. 60ko hamarkadako buelta horretan aita frankista izatea ez zen harro egoteko modukoa.

Alde horretatik, kontakizuna hemen gehiago egin da galtzaileen aldetik, sinpatikoagoak ziren. Hor ere, ordea, ez zen egia kontaktzen. Adibidez, anarkismoaz hitz egiten zutenean ez zuten kontaktzen benetan zer paper jokatu zuten.

Saihestu daitezke onak eta txarrak marra argi batekin banatzen dituzten kontakizun horiek?

Badirudi ezetz, gauzak gertatzen direnean egin behar dela kontaketa simple bat. Lehenbailehen egiten du irabazleak berea eta kontrakoa egiten dute besteek, simplea baita ere.

Hemen abertzaleak dira salbuespena: guri beti kontatu izan zaigu Francoren kontra aritu zirela, baina ondokoekin

“Ez dugu hobera egiten, matxismo forma berriak ari dira sortzen”

“Literarioki interesgarriak egiten zaizkit Donostiako Gu elkartean biltzen ziren falangistak bezalakoak”

“Gerrako lehenbiziko biktimak emakumeak dira, nahiz eta ez zaigun historia hori kontatu ere egiten”

ere nola edo hala, basakeriak egin nahi zituzten-eta. Apaizak Francok akabatzten zituen eta besteek ere ez zituzten maite; eta nazionalistek ez zuten maite gerra; eta dudak, herriko zubiak bota nahi ez; eta ondokoak “traidore batzuk zarete” esaten... Gure gerra konplexuagoa izan da, eta kontakizuna egiaziagoa. Ez zen pelikuletan bezalakoa eta hori oso inportantea da gure narratiban.

Azken hamarkadetako gatazkaren kontakizuna ere ez al da manikeismoan eroriko?

Ez nuke nahi, bestela hemendik hogeita hamar urtera zu eta ni bezalako pare bat egongo dira hemen hitz egiten gure *roloaz*.

Baina badirudi terminologia huts bat nagusitu dela, dena estaltzen duena.

Orain dela gutxi gertatu zitzaidan: horrelako bilkura batera joan nintzen eta zaila egiten zitzaidan hitz egitea. Zeren klaro, hitz egiten nuen nire sentimenduetatik; baina ikusten nuen hain estructuresatuta daudela diskurtsoak, hain terminologia zehatza eta berezia... Lotsa ematen zidala hitz egiteak. Profesional pilo dago horren inguruan. Esango nuke gutxiegi hitz egiten dugula hori gure artean, eta maila horretan berriz, gehiegi hitz egiten dela. Ez dakit gauzak ondo egiten ari diren.



Literaturak bete dezake zereginik horrelako egoeran?

Eman dezake ikuspegi poliedrikoa, nahiz eta funtsezkoa historialariek esan behar duten. Ezin dut ulertu nola dagoen hainbeste eragozpen diskurtso historikoan kontsentsu bat egiteko, nola ezin diren adostu eskoletan ikasleek asuntxo honetaz estudiatu behar dituzten dozena erdi folioak. Gero ñabardurak, grisak eta abar, literaturak jar ditzake.

Faustino Iturbe pertsonaia da istorioko pieza guztiak lotzeko ezinbesteko elementua. Idazleak badu funtzio bat beraz.

Badago karikatura moduko bat: familiak eta Lilik berak pentsatzen du idazleak istorio hori kontatzen duenean, hori geratuko dela. Hori fantasia da, horretan ere asko galdu baitugu. Eszena bat badago Antonio Tabucchiren *Pereirak dioenez*: Georges Bernanosek, nahiz eta eskuinekoa izan, Gerra Zibilari buruzko bere bertsoa ematen du falangisten astakeriak deskribatuz. Eta Franzian "Bernanos dixit" da, pisu handia du haren hitzak. Hori galdu da. Garai batean bazeuden idazle partriarkak-edo, ezin irudikatu zitekeen haiek esaten zutena interes politikoengatik esaten zutenik.

Horren oihartzuna da aitona Faustino Iturberi horrelako garrantzia ematea. Baina azken finean jolasa da,

“Tresneria nobeleskoa erabili behar dela uste dut; nahiko despistatuta nago autofikzioarekin”

“Kulturaz disfrutatzen, sexuaz bezala, ikasi egin behar da”

“Denok galdu dugu kritikarako freskotasuna. Zuhurtzia ere behar da, baina iruditzen zait pasatzen ari garela”

protagonistari gertatzen zaizkion kointzidentzia bezala.

Bata bestearen atzetik gertatzen zaizkio...

Nobelagilearen zeregina bada gauzak era nobeleskoan kontatzea ere. Tresneria hori erabili behar dela uste dut, margolariak margoak kontrolatzen jakin behar duen bezala. Nahiz eta orain arte guztia *happening* den, nik uste teknika beharrezkoa dela. Horretan ahalegindu naiz, karikaturara jotzeraino.

Nahiko despistatuta nago autofikzioarekin. Zeren fikzioarekin badirudi hitzarmen argia genuela: hau, printzipioz, asmatutakoa da. Eta gero zegoen "ni-aren literatura" edo biografia: egia esatera konprometitzen naiz. Eta orain etortzen da autofikzioa eta gertatzen zait autoei zaunka egin behar zela eta bizikletei ez ikasi zuen zakurrarena: motozikleta pasatzen denean ez daki zer egin.

Zehar estiloa eta eszenak deskribatzeko zorrotasuna mantendu dituzu, baina dialogo zuzen gehiago dago *Lili eta bioken zure aurreko lanen aldean*.

Zehar estiloa errealitateari aurre egi-teak markatzen dit, hizkuntzak. Donostian bizi naiz eta askotan neuri ere ez zait sinesgarria dialogo batzuk euskara hutsean ematea. Badakit konbentzioz

egin daitekeela, Koldo Izagirrek kontatu izan digun bezala. Eta neronek ere egin dut *Egunero hasten delakon* adibidez; Donostian egin daiteke nobela euskara hutsean, baina konplexuagoa da.

Horretaz gain, *Hamaika* pausoren ondoren ere gertatu zitzaidan, *Bihotz bi* libreago-edo egin nuela; eta orain ere *Martutene* gainerik kenduta hasi nintzen. Ez dut lortu alde batera uztea *nouveau romanak* jarri zizkidan arau horiek nobela erabat libre idazteko, baina libreago ibili naiz.

Ahal bezain libre?

Bai, esaten duguna eta idazten duguna gero eta neurtuago dago, heterodoxia gero eta erreprimituago; eta gurean denok gara aginteen morroi. Gu zuzenean ez bagara gure aita da, eta zuzenean guk ez badugu subentzio bat jasotzen ondoko hark jasotzen du... Eta gero dago korrekzio politikoa: ezin da esan ezer, berehala ukitzen duzu eremu labaina. Denok galdu dugu kritikarako freskotatuna. Egia da behar dela zuhurtzia ere, baina iruditzen zait pasatzen ari garela. Gu ere handitzen eta normaltzen ari ga-


“Kulturan bidea kalitatezko gauza berritzaileek markatu behar dute”



renez, ari gara jasotzen guztien aje, gaitz eta kalteak, adibidez, gehiengoaren alde egitea. Ona da jendeari gustatzen zaio-lako? Nik uste esan behar zaiela gazteei kulturaz disfrutatzen, sexuaz bezala, ikasi egin behar dela.

Euskararen normalizazioa dela-eta justifikatzen da askotan gehiengoak kontsumitzeko pentsatutako kultur eredu hori. Zer iruditzen?

Uste dut euskararen suspertzea etorri zela beste bidetik, modernotasunetik. Eta beti aipatzen dut ikastolen eredua: jendeak ikastolak aukeratu zituen euskaraz zirelako, bai, baina irakaskuntza aurreratuagoa zelako ere bai, modernoagoa; eta irakasleak konprometitua- goak zirelako. Iraultza izan zen eskola espainolaren aurrean. Literaturan- eta ere antzera: aldaketa ez zen etorri XIX. mendeko eta XX. hasierako teatro herrikoia bidetik, modernotasunetik baizik. Gero jendeak horren atzetik egiten du, baina bidea kalitatezko gauza berritzaileek markatu behar du. Gainera, esperientziak ere hori erakusten du. ■



etb 1 Larunbatero, 13:30ean

etb 2 Igandero, 9:30ean

Eta Interneten: <http://teknopolis.elhuyar.eus>





Alaitz Sarasola Olano
@alaitz_sarasola

Martxoaren 8an Zaldibin, pintxo-poteoan musikaz lagunduta kantatutako sortak.

Nola barrabasa batzan

DOINUA: LEKANDAPEAN URDURI.

1

*Nola barrabasa ba(ra)tzan,
kolore arroxaz plazan,
Jakoba, tonu inbasibo hau
galtzeko zer (eg)in behar zan?*

2

*Kukuprakak mendietan,
txilarra pagadietan,
zergatik ez da inoiz lorerik
mutikoen nikietan?*

3

*Zelai eta belardiak,
sasirik gabe garbiak,
sutara jolas biolentoak
eta sutara barbyak.*

4

*Nola artzaiak artzantzan
aita-amak alaben zaintzan
aurki zintzarri bat baietz jarri
jakiteko zer dabilzan.*

5

*Arrak kontrol hori ez du,
ez dira hezten hain estu,
otsoa etxean hazten dugunik
ezin du inork sinestu.*

6

*Mutiko basapiztiak,
neskato oilo bustiak,
gizarte gaixo ta itsu baten
biktima dira guztiak.*

7

*Eredu duin bat badago
guk begiratu zain, klaro;
telebistatik hurrunago ta
naturatik gertuago.*

8

*Konplejuak desterratu,
bide berriak urratu...
gure baitako barruti hontan
badaukagu zer jorratu.*

Mutikoa panpinari

DOINUA: OIHANEKO PAGOAK BLAI.

1

*Mutikoa panpinari
bere altzoan kantari,
bidea eginez bihar-etziko
zaintza partekatuari.*

2

*Neska baloia jaurtitzen,
errugbian dibertitzen,
"panpox" ibili beharra ez da
bere buruan kabitzen.*

3

*Mutil nerabeak dantza,
oinetan ze konfidantza,
hanka puntetan, presarik gabe,
doa arrakastarantza.*

4

*Emakume bizkor, fina,
zientzialari egina,
bere buruan sinestea zen
aurkikuntzarik haundina.*

5

*Sentiberatasunez blai,
hausnartu ta entzuteko gai,
mende hontako gizonezkoak
ez du harrizko izan nahi.*

6

*Amatasunaren txanda
ez da derrigor, bixtan da;
batek nahiago izan dezake
beti alaba izanda.*

7

*Generoaren afera,
rolak haizea hartzera,
bakoitzak hartu beza barruak
eskatzen dion papera.*

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Bizitzaren gatza eta piperra



Amaia Alvarez Uribe



Nerea eta biok

LAURA MINGEgi

Txalaparta, 2015

Nerea eta biok 1994an argitaratu zuten lehen aldiz, eta 2015ean berriro plazaratu dute. 20 urte gehiagorekin berriro irakurtzeko aukera eman dit honek, hona hemen oraingo irakurketa. Isabel da protagonista, unibertsitateko literatura irakaslea, eta Nerea preso dagoen bere ikaslearekin trukatu-ko dituen gutunak dira nobela honen mamia. Bi ardatz ditu liburuak: Luisen absentzia eta Nerearen presentzia. Senarrak Isabel abandonatu du Ander eta Sara seme-alabak nerabe direla eta horrek krisia ekarri dio protagonistari. Orduan ikasle preso alai, indartsu eta sentibera bat agertu da protagonistaren egunerokoan gutunen bidez, bere kontzientzia piztuz eta bizitzara berriro ekarriz.

Zergatik (gatz barik), Panpox? Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox?* lanarekin erkatu daiteke bikotearen abandonua eta amatasuna dituelako hizpide barne bakarriketa darabilen emakume protagonistak. Gainera, diferentziaren feminismoan lerratutako ikuspegia dugu eta gizon-emakumeen izaerari buruz mintzatzean ikuspegi binarista dute biek. Protagonistak gizonaren falta sumatzen du eta bere bizitza gatzik gabekoa dela sentitzen du. "Maitalea bai, baina ez berriro gizon baten zerbitzari bihurtu" dio. Bakardadea nozitzen du beste emakume baten adiskidetasuna, laguntza eta berotasuna sentitzen hasten den arte.

Carol edo gatzaren prezioa. Lesbianismoa ere badago *Desira desordenatuak*-ean esan bezala. Bertan *islandinga* agertzen da emakumeen arteko harremanen marko literario gisa. Izan ere, harremanok heteroa-

rauaren kontrako erresistentzia irudikatu dezakete gizonik gabeko leku batean, gutunak kasu. Nerea eta Isabelen artekoa harreman konplizea da, maitasun platonikoa, errealitate zapaltzaitetik urrun dagoen ahizpatasuna. Zineman estreinatu berri den *Carol* pelikula etorri zaigu gogora. Patricia Highsmithen *The price of salt* nobelan oinarritutako filmean ere emakume heldu eta emakume gazte baten arteko maitasun harreman samur eta misteriotsua agertzen zaigu, lesbianismoa literaturan maiz agertu izan den moldean. Beste emakume batenganako maitasun sentimenduen auto-kontzientzia agertzen zaigu: "Maitasuna da zugatik sentitzen dudana hau, distantzian eraikitako maitasuna, hitzez egina, begiradarik gabekoa, laztanik bakoa. Beldurra ematen duen maitasun berria".

Marixor gatzaren atzetik. Kartzela ere oso presente dago, askatasun eza, konpromiso politikoa. Protagonistak bere bizimodua auzitan jarria ikusi du Nerearen agerpenarekin. Bere "bertan goxo" egoerari kritika da, lozorroan egon dena esnatzera etorri dira gutunok, hala, protagonistak gogoeta egiten du euskal gatazka eta emakumeen egoerari buruz. Yolanda Arrietak Marixorren ipuina kontatu zigun gatza aita baino garrantzitsua goa dela esanez, eta Laura Mintegiren lanean nolabaiteko berrespena topa dezakegu: zapalduak bere egoerari aurre egin eta hau iraultzeko pausoa eman behar dutela dio, maitasunaren bidez, hau baita, bere irudiko, aurrera egiteko motorra, bizirik sentitzeko beharrezkoa den gatza, "pasiarik gabe ez baitago ezer". ■

» TELEGRAMA


Zanzara taldeak Amaia Irazabalen *Eltxoak* mikro-antzerkia emanen du Gasteizko **Baratza Atarian**, apirilaren 8an, ostiralean *STOP* Apirilaren 7an eta 14an Arrasateko Gaztetxean **Vendetta** eta **Bi Bala** taldeen kontzertuak izanen dira hurrenez hurren, Tokiko Gazte Asanblada sortu zeneko 25. urteurrenaren zioz *STOP Nigara Zuek* ezizeneko kantariak *Zer falta zaizu?* bakarkako lehen diskoa aurkeztuko du Iruñeko **Katakra**ken apirilaren 16an *STOP Manex Pagolak* kantu emanaldia eskainiko du Baigorriko elizan, apirilaren 23an, *Izaiteko librea* liburuaren kariatara *STOP*

» DISKOA

Txakur zaharrak sasoi batean



Iker Barandiaran

**No cambies siempre**

SEÑOR NO

Folc Records, 2015

1980ko hamarkada bukaera da Euskal Herrian eta pil-pilean egon den punkak ez du sorpresa handiagorik emango. Aurreko belaunaldiak errailetatik eta Ingalaterratik edan du, baina ondorengoek ez dute haien freskura bera. Donostiako auzo batean, ume moko batzuek, RRV-ari bizkarra emanez politika eta musika bereizi nahi dute eta AEBetako punk taldeei jartzen diete arreta gehiago. Buenawixta etxe okupatua La Perrera taldea jaio zen. Single bat, muturreko hainbat kontzertu, disko bat eta agur. Gaur egun erreferente da talde hura askorentzat baina garaian jarraitzaile fidelak baina oso gutxi zituen.

1993an txakurtegiko kide bik Nuevo Catecismo Catolico sortu zuten; eta beste bik Señor No. Ibilbide paraleloak izan dituzte, punk-rocka biziberritu, energia barra-barra partekatu eta ikuskizuna eskainiz: lehenak punk-rockaren ortodoxiari ikuspegia ireki, berrasmatu eta duindu zuen; Señor Nok, berriz, beti izan du gehiago high-energytik, basakeriatik eta Bukowskyren pareko galtzaileen poso malenkoniko horretatik.

Taldeko motore eta konposatzaille nagusi, gitarra jotzaile ikaragarri eta agertokiko piztia den Xabi Garrek beti izan ditu presente MC5, Stooges, Motörhead, La

Banda Trapera del Rio, Burning, The Who, Rocky Erickson eta Union Carbide Productions, besteak beste. Señor No-ren urrezko garaia itzela izan zen (Xabi gitarra eta ahotsean, Mikel baxuan, Andoni baterian eta Imanol beste gitarran) eta basakeriaz zein poesiaz blai egindako lau disko luze (*Señor No-94*, *No mundo-96*, *No me hables-99* eta *Siempre te diré que no-2003*) eta single ugari kale-ratu zituzten. Gerora, 2003an, partaide batzuek aldatuta, *Señor Sí* akustikoa grabatu zuten zuzenean.

Hortik aurrera taldeak ez du ordu-ra arte bezalako jarraikortasunik izan, nahiz eta Xabik beti izan duen ontzieren lema eta ondoan izan dituen Fumay, Yarza, Guantxe eta beste musikari dotoreak. Emanaldi gutxi horiek Flaming Groovies talde handiaren sortzaile Roy Loney-en talde gisa egin izan dituzte; eta baita ere orain gutxi Dead Boys-eko Cheetah Chrome-rekin ere.

Orain, etenaldi luze baten ostean, taldea indarberrituta dator, oso sasotsu, eta disko luzea besopean: *No cambies siempre*. Fumay baxuan, Fosy baterian eta Leongo Jorge beste gitarran, aspaldi taldeak izan duen zuzeneko indartsuenari eutsiz. Big Sandyren *The great state of misery*, Dogo y los Mercenarios-en *Que bien me lo paso* eta zazpi kantu berri. Boltaia handiko rock gitarreroa, melodia sarkorra duena, power-popa, psikodelia, armonika, wah-wah pedalera, sitarra, pianoa, high-energya eta gero eta nabarmenago The Soundtrack Of Our Lives-en arima airean. ■



Lokatzezko kantuak

EMANALDIA

Amorante eta JP Lohian & Klonen Klana.
Martxoaren 17an 20:30ean, Gasteizko Hell Dorado aretoan eskainitako emanaldia.



Jon Aranburu Artano
@jonaranburu

Martxoko ostegun hotz baterako ez zegoen plan hobirik Amorante eta JP Lohian eta bere Klonen Klana ikustera joatea baino. Kartel ezinhobea, aurten euskal musikak eman dituen bi sorpresa dotoreenak batera baitzetozen, nora eta Hell Doradora. Aretoa ezagutzen duenak badaki, leku gutxi egongo direla hau bezain egokiak kontzertu ozen bat entzun eta ikusteko.

Amorante lehenago ere ikusia genuen Gasteizen, eta horren berri eman genuen sail honetan. Izango zen baten bat Iban ikustera joana zena. Berak hasi zuen emanaldia, eta kontzertu laburra eman zuen, nahiz eta erreperitorio gehientsuena jo, eta kantu berriren bat edo beste ere bai.

Baina, inork esan gabe ere bagenekien Klonen Klanaren zain geundela bertaratutako guztiok, eta publikoaren jarreraren nabarmendu zen, Joseba Ponce eta bere lagunak taularatu orduko, lehenengo ilarak jendez bete baitziren. Disko bakarra esku artean, aurretik bi kontzertu



DOS POR DOS

bakarririk emanda, eta hala ere, aretoa bete; seinale gogoia zegoela Joseba Ponceren lana zuzenean ikusteko.

Eszenografia, zaindua: lanparaz eta laborategi makabro bateko itxura zuten ontziz josia zegoen taula gaina. Eta bertan, luxuzko banda: Libe Garcia de Cortazar teklatu eta ahotsetan, Karlos Osinaga "Txap" baxu eta ahotsetan, Galder Izagirre baterian, Gorka Sesma gitarran, eta JP bera gitarra eta ahots nagusian ziren klonak. *La crème de la crème*.

Gerora irakurri dugunagatik, Bilbon aurreko egunean eman zuen kontzertuaren bestelakoa izan zen kantuen ordena; izan ere, Gasteizen Liberen diskoan kaleratu, baina Joseba Poncek berak idatzitako *Gurinezko bihotza* kantuarekin hasi baitziren, eta gero kantuak ez zituzten diskoko ordenan jo. Kantu horrez gain, diskotik kanpoko beste bat ere jo zuten, jendeak abestu ez zuen bakarra, ze beste guztiak ozen kantatu zituen. Zortzi kanta gutzira, beraz, oso oker ez banago. Gutxitxo aukeran, baina dagoena dago.

Irrika zegoen entzuteko nola zuzeneratuko zituzten kantuak, eta neuri, behintzat, bete-betean asmatu dutela iruditzen zait. Diskoaren aldean, zuzenekoa indartsuagoa da, ñabardura gutxiagokoa, agian, baina intentsoagoa. Kantuak lokatuago zetozen, Bidasoak kutsatua. Stonerra, psikodelia, rocka... diskoan topa daitezke, baina zuzenean, zenbaitetan, Hardcore kutsuak ere nabari zitezkeen, Galder eta Txapen erritmo konbo basatiaren eraginez, eta horrek Dut eta Kuraia zekartzaten burura, ezinbestean.

Duela 20 urte Dutekin buruak astindu genituenok, gero Kuraiarekin ere astindu genituen; orain, JP Lohianekin tokatu da, eta luzerako izan dadila. Ez dakigu, baina, agendak nola koordinatuko dituzten taldekideek. Oraingoan, behintzat, kontzertu sail bat eman dute eta isildu egin dira. Pena litzateke horretan gelditzea, ze Euskal Herriko talde interesgarrienetako bat dira, dudarik gabe. Baina hau esanda, ez diot inori ezer deskubritu. ■

Egilea: Ana Zambrano

Bertso-zopa

Osa ezazu Alaia Martinek 2014an Gasteizen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Hil da Cánovas fuera Cánovas III*. Gaia: Epaillearen aurrean jarri eta hala galdetu dizu: “¿Participó usted en la kalejira de Sarrasarro pro presos hace dos años?”.

Mikro aurrean ____ hutsak du bere erantzukizuna batik-bat egi ____ bada esateko daukazuna. Herria(re)n ____ egitea da guk dugun eginkizuna. A ze galdera, ze sakontasun eta ze ____ baina galdetu aurretik ere badakizu ____.

Hona etortzeko deia jasota ____ naiz larritua herrigintzan ta laguntzan soilik naizelako ____ ez dagon hortan hutsak bilatzen ____ zu aditua herri batek du ezin jasana ta ____ konprenitua nik ere badut nere galdera: zergatik den ____.

Ta hori zer da? Igual isuna edo espetxean bi ____ estuasuna ta dirutza bat zirko ____ honen truke. Defendatzeko egia badut badut nahikoa ____ nire erantzuna baietza duzu bazenekiena zuk'e eta ____ esango dizut: berriro ____ nuke.



Amaia Zabalo / Aizul

S	O	N	B	E	R	T	U	T	E	A	N	E	J	A
E	S	A	S	J	N	C	E	S	L	O	S	F	S	I
Z	A	I	T	U	G	U	N	D	S	T	O	R	B	B
Z	T	R	Z	A	O	A	E	O	U	E	J	G	E	G
O	G	N	I	G	E	S	A	A	Z	N	A	J	O	R
N	A	Z	E	T	S	H	S	I	S	A	S	G	N	S
J	M	A	R	F	U	N	A	R	E	A	O	U	M	
J	A	E	A	H	N	A	K	B	G	I	Z	I	P	J
S	D	R	N	A	V	S	I	T	H	D	E	S	A	C
O	J	S	T	R	E	O	G	E	A	O	D	R	C	E
U	H	J	Z	Z	F	H	G	B	V	E	R	L	R	F
R	J	D	U	A	E	H	U	I	L	O	L	I	T	V
T	M	D	N	R	R	U	T	I	T	N	E	S	Z	B
E	C	Z	A	I	B	O	T	M	E	S	D	F	O	M
F	T	F	N	P	N	U	D	I	G	H	M	P	U	U
R	R	V	S	G	A	M	A	P	E	R	G	D	U	T

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										



Goitik behera:

1. Erabat, txit. Uzker. 2. Leku hartara. Ixilik. 3. Ados. Zintzo.
4. Infusio bizigarri. Ospea, harrera ona. 5. Hondarra. 6. Irmo, finko (Iparraldean).
7. Larruazaleko irekidura edo hondamena. Herri hizkeran, zer. 8. Aluminioaren sinboloa. Geriza. 9. Arnas ezak hil. Aipatu aditzaren infinitiboa.
10. **Argazkian**. Bertso lerroaren osagaia den eta hura neurtzeko erabiltzen den silaba multzo.

Ezker-eskuin:

1. Ohean etzan, oheratu. Erraza ez dena. 2. Pilota jokoan jartzea. Hutsa, hobena. 3. Erabat, guztiz. Hihaur. Ustekabea, harrimena. 4. Harrizko ezkutu.
5. Intsektua, xinaurri zuri ere esaten zaio. 6. Azken eta hirugarren bokalak. Nihaur. Arrazoi, zergati.
7. Txanoa. Eskuoihal, trapu. 8. Alde, eremu. Nola.

Sudokua

Erraza

4		7		8	2	5	6	
9	8	1						2
2	6				7	9	8	4
5					6	8		7
			8		4			
6		8	3					5
8	5	9	4				7	6
3						1	5	9
7	6	5	9		2			8

Zaila

		6	3				7	
9	1		4				8	
			9	1				2
2			5			3		4
	7						6	
3		1			8			7
6				5	9			
	9				4		2	5
5					1	8		

Soluzioak

Mikro aurrean **jartze** hutsak du/bere erantzukizuna/batik-bat egi **osoa** bada/esateko daukazuna./Herrian **alde** egitea da/guk dugun eginkizuna./A ze galdera, ze sakontasun/eta ze **estuasuna**/baina galdetu aurretik ere/badakizu **erantzuna**./Hona etortzeko deia jasota **sentitu** naiz larritua/herrigintzan ta laguntzan soilik/naizelako **aritua**/ez dagon hortan hutsak bilatzen/zatutugu zu aditua/herri batek du ezin jasana/ta **ezin** konprenitua/nik ere badut nere galdera/zergatik den **delitua**./Ta hori zer da? Igual isuna/edo espetxean bi **urte**/estuasuna ta dirutza bat/zirko eskas honen truke./Defendatzeko egia badut/badut nahikoa **bertute**/nire erantzuna baietza duzu/bazenekiena zuk'e/eta gehiago esango dizut./berriro **egingo** nuke.

S	O	N	B	E	R	T	U	T	E	A	N	E	J	A
E	S	A	S	J	N	C	E	S	L	O	S	F	S	I
Z	A	I	T	U	G	U	N	D	S	T	O	R	B	B
Z	T	R	Z	A	O	A	E	O	U	E	J	G	E	G
O	G	N	I	G	E	S	A	A	Z	N	A	J	O	R
N	A	Z	E	T	S	H	S	I	S	A	S	G	N	S
J	M	A	R	F	U	N	A	R	E	A	O	U	M	
J	A	E	A	H	N	A	K	B	G	I	Z	I	P	J
S	D	R	N	A	V	S	I	T	H	D	E	S	A	C
O	J	S	T	R	E	O	G	E	A	O	D	R	C	E
U	H	J	Z	Z	F	H	G	B	V	E	R	L	R	F
R	J	D	U	A	E	H	U	I	L	O	L	I	T	V
T	M	D	N	R	R	U	T	I	T	N	E	S	Z	B
E	C	Z	A	I	B	O	T	M	E	S	D	F	O	M
F	T	F	N	P	N	U	D	I	G	H	M	P	U	U
R	R	V	S	G	A	M	A	P	E	R	G	D	U	T

6	9	6	8	8	1	2	2	3	3	1	7	5	4	7
1	1	6	6	4	7	7	2	5	5	5	5	1	6	3
6	8	8	9	4	3	1	7	8	5	4	3	1	6	3
3	4	1	6	2	8	9	6	9	5	7	7	8	3	4
7	9	1	4	3	2	6	8	5	9	7	3	1	4	4
2	6	8	5	5	6	7	3	1	4	4	2	2	6	8
8	3	7	9	1	6	5	4	2	2	2	2	6	8	3
9	1	5	4	7	2	6	8	3	3	3	3	1	7	9
4	2	6	3	8	5	1	7	9	1	7	9	1	7	9

1	7	6	5	9	3	2	2	4	8
3	2	4	7	6	8	1	5	9	9
8	5	9	4	2	1	3	7	6	6
6	1	8	3	7	9	4	2	5	5
7	9	2	8	5	4	6	1	3	7
5	4	3	2	1	6	8	9	7	3
2	6	5	1	3	7	9	8	4	4
9	8	1	6	4	5	7	3	2	2
4	3	7	9	8	2	5	6	1	1

Erraza
Alpa 10. Lata, Ohn.
7. Zauri, Ze 8. Al. lizal. 9. lto.
Menta 5. Harea. 6. Fermu.
2. Hara, lxo. 3. Akort. Oh. 4. Te.
Goitik behera: 1. Oso. Putz.
Zelan.
Nau. Zio. 7. Txota, Zapl. 8. Zona.
4. Arnart. 5. Termite. 6. Uf.
2. Sake, Falta. 3. Oro, Heu. Oh.
Ezker-eskuin: 1. Ohatu, Zail.

María do Cebreiro Rábade. Sentitzen dut



Alain Badiouren hitzetan, filosofoak behar du izan jakituna, artista, militantea eta, era berean, maitalea. Lau baldintzak betetzen ditu María do Cebreirok. Baina ez da zehatz filosofoa: Literaturaren Teoriako irakaslea Santiago de Compostelako Unibertsitatean, eta poeta. Afektuak pentsamendu kritikoarekin nola giltzatu ari da orain.

“Beharrezkoa da maitasunak gure bizitzetan duen lekua berrasmatezea”



Aritz Galarraga

@aritzgalarraga

ARGAZKIAK: PABLO CAYUELA

Independentzia

“Pierre Bourdieu soziologoak nabarmentzen zuen eremu estetikoaren autonomia aitortzearen beharra, ekonomia edo politikaren aurrean. Gure mundu honetan, adierazpen aske gero eta gutxiago dagoenean ziurtatuta, zeinean botere politikok nahiz merkatukoek bilatzen dituzten zentsura modu orain artean ezezagunak, literaturaren independentzia defendatzea, edo maitasunarena, akzioaren edo pentsamenduaren beste erregimen batzuen aurrean, oraindik ere borrokatzea merezi duen zerbait da. Nahiz eta horretarako segur aski arma berriak behar izango ditugun”.

Poza, tristura, beldurra, nazka eta haserrea. Horiek dira gizajendearen emozioak. *Inside Out* filmaren arabera, beti ere.

Pelikula horrek ondo erakusten du entretenimendu korporazio erraldoiek zer gaitasun duten iruditeria konkretu bat barneratzeko giza kontzientzian. Aitoritu behar da zientzia fisiko eta esperimentalak oso abilak direla dibulgazio lanean eta lortu dutela aisiaren industriekin ados jartzea. Ziur naiz aipatu filmeko aholkulariek kontuan izan balute literaturak eta arteak mendeetan zehar pertsonen osotasun emozional konplexua deskribatu izan duten modua, afektuak irudikatze mekanismoak izango lirakeela erakusten direnak baino sotilagoak.

Sotilago ari dira afektuak merkantzia bihurtzen, hori bai, ezagutza-kapitalismoaren testuinguruan.

Inside Out da hain zuzen bilakaera horren erakusgarri, enpresa munduan eta komunikazio linguistikoarekin lotutako lan egituretan –unibertsitate, hedabide eta abarretan– dagoena. Zehazki,

filmak murrizten ditu gure sentitzeko moduak pragmatismo desesperagarri batera. Begira zer egiten duen tristurarekin: justifikatzen du “beharrezkoa” den neurrian. Zer gizarte klase da hau, gurutzatzen gaituzten emozioak funtzional edo disfuntzional gisa sailkatzea gonbidatzen gaituena, plazera edota sentitzeagatik sentitzearen eskubidea bera ukatzen dizkiguna.

Era berean, itzultzen ari dira afektuak ikasketa sozial eta kulturaletara, “biraketa afektibo” bat ematen ari da.

Zalantzarik gabe, baina pentsamendu kritikoa ikuspuntutik garrantzitsua da biraketa horren aurrean adi egotea. Ia dena ustiatze bidean jarri den mundu batean, ematen du intimitatea dela gaituzteko dagoen azken muga. Eta ez dugu ahaztu behar jakintza akademikoak ere bizi direla egun, neurri handi batean, merkatu eta ekonomia logiken eraginpean.

Roland Barthesek esan zuen: “Amodioaz ez dago zientziarik”.

Uste dut Barthesek aurre hartu ziola



“Zertaz ari garen maitasunaz ari garenean: derrigorrezkotzat jotzen den zoriontasunera eraman behar gaituen afektua da?”

maitasunaren merkaturatzeari, esan zuenean maitasunaz hitz egiteko beharrezkoa dela, nolabait, maitasunarekin nahastea, maitemindutako diskurtso bat sortzea. Hor ikusten da gardentasun eta zintzotasun ariketa bat, gero eta urriagoak diren balore batzuk, sarerik gabe hitz egitea. Eta hitz egiteko posizio hori, bestea entzuteko posizioa ere bada.

Antonio Negrik indar subertsibotzat du maitasuna.

Maitasuna izango litzateke pasio aktibo bat, pertsonak bultzatzen dituelako egitera eta partekatuz. Zentzu horretan, maitasunak gaintzen du gizabanakoaren nozioa, baina baita bikotearena ere, bikotea ulertzen badugu indibiduen gehitze soil gisa. Maitasunak komunitatea sortzeko duen gaitasuna defendatzen du Negrik.

Nymphomaniac filmean, Joe pertsonaia maitasunaren kontra oldartzen da, “maitasunarekin obsesionatuta dagoen gizarte” baten aurka.

Zertaz ari garen maitasunaz ari ga-

renean: derrigorrezkotzat jotzen den zoriontasunera eraman behar gaituen afektua da? Maitasuna badugu “bikote maitasun” hustzat –orokorrean heteronormatiboa– erraza da pertsonaiaren esaldiarekin bat etortzea. Hala ere, esango nuke maitasunaren diskurtsoa erabat dela bakartia, murrizten baita San Balentin egun edo antzekoen logika komertzialera, edo bikote –heterosexual nahiz homosexual– egonkorraren inguruko maki-neriara.

Bizitza afektiboaren birtualizazio teknologikoa dago, gero.

Eva Illouz soziologoak dio: ematen du helburua dela kapitalismo arreratuak bere eskumenetik kanpo duen azken gotorlekua kontrolatzea, pertsonen intimitatea. Eta nahiko asaldatzailea da pentsatzea kapitalismoak nola bilakatzen duen negozio milioika lagunaren –potentzialki, gu guztion– bakardadea edo desamodioa. Jendearen asegabetasuna kontsumo instantzia berdinek sorrarazia eta esplotatua da.

Marina Garcések ohartarazten gaitu maitasun erromantikoa esaten zaion horren deabruzatzeaz.

Maitasun erromantikoa *a priori* maitasun txarra dela onartzea zentzugabekeria iruditzen zait. Psikologo eta hezitzaileek dute egun maitasuna zer den eta zer ez den erabakitzeke monopolioa. Baina berdin da zentzugabekeria gure maitasun jarrera zuzendu behar duena kalkulua dela esatea –interes ekonomikoa duten harremanen proiektzio disimulurik gabea, harreman pertsonaletan–.

“Maitasuna berrasmatzeko dago”, esan zuen Arthur Rimbaudek.

Judith Revel filosofoak etengabe dio esperimendazioa politikaren eremura eraman behar dela, ez bakarrik estetikarenera. Eta ideia horretatik abiatuta, gehituko nuke gure sentitzeko eta harremanak izateko modua kontrolatzearekin obsesionatutako mundu batean, gero eta beharrezkoagoa dela egunero berrasmatzea maitasunak gure bizitzetan duen lekua; bere efektuak murriztu ordez, zabalduz irismena. ■



Realak 5-0 irabazi dio Gipuzkoako Ogasunari: Panamako Championsa gertuago

Realak paradisu fiskalak erabili zituen bere jokalariei ordaintzeko “Panamako Paperak” izeneko filtrazio masiboan agertu denez. Eta noski, notiziak donostiarrak haserretu ditu. “Ezin dut sinetsi: Kovacevic-ek zergarik ez pagatzea berdin zait, baina Mattias Asper? Mesedez! Tipoak ez zekien baloia biribila zenik ere!”, azaldu digu, txotxa hortz artean, Txomin Atotxaberri realzaleak. Auzian inplikaturako jokalariei batek, anonimoki, honako azalpenak eman dizkigu: “Beno bai, ezta? Gu serio entrenatzen ari gara eta inspektzio fiskalak kontrario gogorak diren arren, ezta? Dena ematera ateratzen gara, ezta? Eta bueno, egia esan, ezta? Ba hori, orain ere saiatuko gara, ezta? Berriz ere hiru puntuak edo ahal dugun diru gehiena etxera ekartzen, ezta?”.



Kokaina poltsak oparituak dituzte kirol egunkariak Maradona hiltzen denean

Duela gutxi hil den Johan Cruyffen omenez Espainiako zenbait kirol egunkariak Chupa Chups bana oparitu zuten joan den asteburuan. Goxoki markaren publizitaterako abilezia imitatu nahian, beste negozio batzuk ere kirol-izar hil berrietan oinarritutako komunikazio-estrategiak prestatzen ari dira. Kolonbia Bidaiak agentziak jakinarazi digunez, promozio



berezi bat dute buruan Diego Armando Maradonak azken hatsa ematen duenerako: “Lerro arteko jokoa” du izena eta ez da haurrentzako futbol kanpaleku bat prezisamente (nahiz eta, egia esan, geroz eta goizago hasten diren kabroiak). Donostian, Bataplan diskoteka ere aztertzen ari da zer egingo luketen (deabruak guarda) Javi De Pedro hilko balitz.

Athletic euskalduntzeko planak aurrera darrai: Laporte kaputt

Aymeric Laporte atzelariaren lesio larria Lezamako pasabide ilunetan egosten ari den konspirazio latz baten parte da, Beranduegik han infiltratuta duen masajistak argitu zigunez. Zuri-gorrien filosofia muturreraino eramanez nahi dute: historian lehen aldiz bilbotarren hamaikakoan euskal hiztunak besterik ez aritzea.

Planaren bigarren faseak Athleticen bizkaierazko hiztunak besterik ez egotea luke helburu. Realaren inguruan pozez hartuko zuketenean zurrumurrua ordaintzatxo irregular batzuen arazoa konpontzen lanpetuta ez baleude. Zelangura, konspiratzaileek Aduriz erretiratu arte itzarongo lukete bigarren fase horri ekiteko, 2037an edo.

ARGIAKOEN (G)UNEA

Gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIA kideak gure oinarria

OROIMEN HISTORIKOA
PAREKIDETASUNA
HERRIEN MUNDUA
HEZKUNTZA ERALDATZAILEA

EUSKALZALETASUNA

ELIKADURA BURUJABETZA
INDEPENDENTZIA
DEMOKRAZIA ZUZENA
DESOBEDIENTZIA ZIBILA
GIZA ESKUBIDEEN DEFENTSA
ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
SEXU ASKAPENA



Euskarazko astekari zaharrena gara, Zeruko Argiaren oinordeko, eta 2019an ehun urte beteko ditugu euskarazko kazetaritza egiten. Urrunago goaz ordea, eta euskarazko kazetaritza egiteaz gain, gure irakurleei euskaltzale aktibo, euskararen erabileran eragile, izateko tresnak eskaintzen saiatzen gara.

APIRILEKO ZOZKETAK



**Kontseilua eta
Euskaraz Bizi Nahi dut (3 saski)**

Kontseilua
kontseilua.eus



**Irten hizkuntzaren armairutik
(5 liburu)**

Emun
www.emun.eus



Azken Txorakikeriak

ARGIA
www.argia.eus/denda



**Euskal Herrian Euskaraz-en
materiala**

Euskal Herrian Euskaraz
www.euskalherrianeuskaraz.org

MARTXOKO
SARITUAK

BERDEAN HEZI: XABIER ZUZUARREGI (ZIZUR NAGUSIA), OIHANA PLAZA (MARKINA-XEMEIN)

HAURREN HIRIA: IMANOL ARLUZIAGA (DONOSTIA), LEIRE ELIZAGARAI (GASTEIZ)

URTIXINTXA SASKIA: MIKEL GARMENDIA (BILBO), HAIZEA RAMIREZ DE ALDA (ALTSASU), EGOITZ UNAMUNO (SORALUZE), BELEN IRASTORZA (ZALDIBIA)

HAZI HEZI HARPIDETZA: ADOLFO MASID (HERNANI), JOXEMARI MUXIKA (ARRASATE), ARRATE LARRUZEZA (BERMEO), G02 IRUNGO BERRITZEGUNEA (IRUN), ITZIAR GARCIA (OÑATI)

PERRETXIKO ZAINDARIAK: IDOIA ATXAGA (DIMA), ENEKO ETXEBARRIA (AGURAIN), JONE SANTAMARIA (DONOSTIA)

Herri mugimenduko eragilea bazara eta zure lana ezagutarazi
nahi izanez gero, jar zaitez gurekin harremanetan

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545

gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com